

puntuua



BEÑAT

GAZTELUMENDI

BERTSOLARI

SENTITZEN DEN

TXAPELDUNA



PUNTUA 223

2020-01-24 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkia:
Ibai Zabala.

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Gotzal Mendibil
- 6 **Irudiz** Amaraun izoztua
- 8 **Mundutik** Belgika: *Elkaar*
- 10 **Erreportajea** Garai berrietara egokitu dira elkarte gastronomikoak
- 20 **Elkarrizketa** Beñat Gaztelumendi, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea
- 24 **Osasuna** Insomnio arazoak
- 26 **Kirola** *Kajukembo close combat* arte martziala
- 28 **Adituen esanetan** Bloke geometrikoak, potentzial handiko materiala
- 30 **Otorduan** Maulanda jatetxea: gertuko tratua nagusi
- 32 **Moda** *Ear cuff* belarritakoak
- 34 **Motorra** Marokora bidaia
- 36 **Gure artistak** Danel Teran oñatiarra
- 38 **Kultura** *Gorria* ikuskizuna
- 40 **Liburu artean** *Neguko argiak*
- 42 **Gure altxorrak** Antzuola: Frantses iturria
- 45 **Teknomania**
- 46 **Handitzen, handitzen** *Plazan Bazan*
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Marijo Deogracias *Karu dago "hepa" bat!*
- 16 **Hainbat aburu** Aitor Orobengoa *Ortubai Ez dezagun gure burua engainatu*
- 16 **Eztabaida** *Januhairy*, ilea aldarrikatu
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Iker Agirre *Asko dugu jokoan*
- 18 **Talaiatik** Mikel Lezamiz *Kultura demokratiko falta*
- 44 **Komunikazioa** Mikel Arregi *Behatza eta itsasoa*

puntua

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

goiena^{''}
KOMUNIKAZIO TALDEA
TOKIKOM

Lehendakaria
Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate
Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa
Igone Osinaga
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma
Amaia Martinez de Arenaza
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano
Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Karu dago "hepa!" bat



MARIJO DEOGRACIAS

Sarean ikusi ditut Pablo Iglesias Espainiako presidenteordearen –beno, presidenteordeetako baten– irudiak gobernuko dena delako egoitzako beharginak agurtzen; joan dela, lanpostuz lanpostu, lankide izango dituen funtzionarioak ezagutzen. Batzuen kritika izan da emakumeei muxu bi eta gizonezkoei eskua luzatu diela Podemoseko buruak. Horrek ere badu irakurketarik, baina ez naiz horretaz arituko. Izan ere, Iglesiasen keinu hori, bera baino lehenagotik egoitza horretako langile direnak banaka-banaka agurtu izana, albiste izatea da atentzioa eman didana. Ez ei da ohikoa gorenako kargudunak keinu hori izatea lankideekin. Kargudun gorenari ei dagokio bere bulegoan ixtea, gertuko kolaboratzaileekin. Eta bulegoetan lan egiten duten funtzionarioei, ba hori, egin dezatela lan eta kito. Eta hau diot ze, niri ere gertatu zitzaidan sorpresan hartzea funtzionarioek Nafarroako Hezkuntza kontseilariak banan-banan agurtu zituenekoa. Oso argi zuen Maria Solana Arana kontseilari berriak bere lehenengo egitekoa horixe izango zela: langileak agurtzea eta bere burua aurkeztea guzti-guztietan; azken batean, departamentu-buru izendatu zuten zutenez gero, eta, beraz, karguan egongo zen jarduera guztian zehar, lankide izango zituen bulegoetako langile guztiak. Eta *lankide*-k ez du esan nahi *kolaboratzaile*, kasu guztietan; baina esaera zaharrak dioenez, ausardia bertute handia da, zuhurtziaren lagun beharra da.

Orduko hartan hiru egun eman genituen Santo Domingo kaleko eraikinean ari ziren ia 400 beharginak agurtzen. Keinu sinplea, baina zeresan handia eman zuena. Askok aipatu zuten inoiz ez zela kontseilari bat langileak agurtzera joan; eta beste askok lehenengo aldiz zuzendu zitzaiela kontseilari bat, euren arduradun nagusia, aurrez aurre. Sinestezina!

Baina badugu, bai, agurtzearekin holako harreman bitxia. Batetik, eta mendian inorekin topatuz gero, ez diogu agurrik ukatuko. Bestetik, eta oporretan hor zehar garenean, herriko norbait ikusten dugun okasioetan, han goaz, aspaldiko laguna balitz legez agurtzera. Aldiz, egunerokoan, lantokiko pasabidean, ate ondoan erretzen, eskailera mekanikoetan edo igogailuan inorekin topatzen garenean, zenbat kostatzen den buruarekin keinu sinple bat egitea! ■■■

**ZENBAT KOSTATZEN
DEN BURUAREKIN
KEINU SINPLE BAT
EGITEA**

Gontzal Mendibil

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: EDUARDO CAMINO

Biok da Zeanurikoaren lan berriena, 70eko hamarkadan musikan hasi zenetik kaleratu duen hamazortzigarren diskoa.

Zuri eta beste nori egiten dio erreferentzia diskoaren izenak? Entzule dudana horri. 45 urte hauetan zehar, bai zuzenekoetan baita diskoetan ere jarraitzaile asko izan ditut, eta, zorionez, badiut oraindik ere; horiei dago zuzenduta: nire kantuek eta hitzak hunkitzen dituztenei.

Diskoko hiru abestik ama hitza dute izenburuan. Kasualitatea? Bittor Kapanagak zioen zerbait behin eta berriro errepikatzen bada, kasualitatea kausa bihurtzen dela. Beti pentsatu izan dut gure hizkuntzak baduela nolabaiteko sistema matriarkala: lurretik garatzen den guztiari izena ematen zaio, eta horrek amatsun bat dauka.

Amaren sua abestiak gure hizkuntzari eta garenari egiten dio erreferentzia; *Ama Gorbeia*-k, mendiari; eta *Agur ama* kantuan, Lauaxetak idatzi zuen azken poemari musika jarri diot: ezberdinak dira, baina, era berean, badute zerbait amankomunean.

45 urteren ostean, zertan aldatu da abestiak konposatzeko duzun motibazioa? Urteak pasatu arren, egoera bai, baina izaera ez da aldatzen; bakoitza garena gara. Ni frankismo garaian hasi nintzen, eta orduko aldarrikapenak orduko askatasun faltari lotuta zeuden. Egun beste era batera aldarrikatu eta estetikoki beste moldaketa batzuk egin arren, gogoak berdinak dira.

Zein da hainbeste denboraz musikan jarraitzeko sekretua? Norberak egiten duen hori sentitu, eta besteei sentiaraztea. Nire kasuan, bihotzetik, barruan sentitzen dudanetik hasten da sormena, eta gero arrazionalizatzen dut. Melodia batek edo poema batek hunkitzean hasten naiz sortzen.

Urte hauetako guztietako garai edo momentu batekin geratzeko eskatuko bagenizu... Garaian garaikoa. Momentu honetan oso gustura nago, sormen aldetik ondo, gogotsu nagoelako. Hainbat proiektu ditut, eta, horiek beti irteten ez diren arren, badut beti itxaropen batekin aurrera

egiteko gaitasuna. Azken disko hau intimoa da eta gustura nago emaitzarekin; baina musikal handiak ere egin ditut, eta banabil antzerako zerbaitekin.

Bittor eta biok liburua ere argitaratu duzu, lehen aipatutako Bittor Kapanaga ardatz. Idazten dudana bigarren liburua da. Nire hasieretan, 1974an ezagutu nuen Bittor. Otxandioko kantaldi batean gerturatu zitzaidan, eta elkarrekin lan egitea proposatu zidan. *Rara avis* bat iruditu zitzaidan, baina nik gustukoak ditut halakoak. Maisu handi bat izan zen niretzat, eta berarekin zor bat nuela sentitzen nuen. *Bagare* abestia elkarrekin sortu genuen, eta horregatik eta euskararen sortzaile moduan da ezaguna; baina pentsalaria zen, batik bat, baita psikologo handia ere. Hori azaleratu nahi izan dut liburuan, bion arteko elkarriketa eran.

Bagare idaztean, pentsatzen zenuten oraindik ere hain ezaguna eta kantatua izango zenik? Inondik inora ere; herrikoi bihurtu da, eta hori da sortzaile bati gertatu dakioken onena. Oletan, Aramaion sortu genuen, 1974ko abenduan, eta orduan asko zegoen egiteko euskararen inguruan. Bittor bizirik balego asko poztuko litzateke euskarak, batez ere Araban, aurrera zenbat egin duen ikustean.

Arantzazurekin ere harreman estua izan duzu.

Niretzat leku berezia da; gune izpiritual eta kulturala. Gauzak aldatzen ari dira, eta ez dakit zer gertatuko den Arantzazurekin etorkizunean, baina ea berean jarraitzen duen. Bitoriano Gandiaga nuen lagun han; eta *Iparragirre* eta *Olentzaro* ikuskizunak ere bertan sortu nituen. Goian egonda aingeruak gertuago daudelako izango da, baina sormenerako leku aparta da.

Musikaz gain, beste zertan zara abila? Idaztea beti gustatu zait, antzerkia ere bai. Iparraldean maskaradak legez, Zeanurin herri-antzerkiak beti egin dira. Bikoizketa lanak ere egin ditut, soziologia ikasketak burutu... Baina musikan nabil gusturen. Aurten, *Biok* diskoko kantuek eskainiko ditut, eta 200 urte ere badiutugu Iparragirre jaio zela. Nire beste proiektuetako batek, hastapenetan dagoen musikal batek, zuen bailararekin du zerikusia, Jose Maria Arizmendiarieta du-eta hizpide. ■■■



Amaraun izoztua

ARGAZKIA: GARBIÑE BEITIA AZKARATE

TESTUA: ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Kakorratz-lana dirudi; eta baita ehun zuriz apaindutako zuhaitza. Soineko zuria jantzi duen zuhaitz ederra. Baina ez da kakorratz-lana, amarauna baizik. Amaraun izoztua. Azkenaldiko egun hotzek horrelako irudiak utzi dituzte bailarako eta inguruko bazterretan. Landako urtegian hartutako irudia da; goizeko irteeran, hotzari aurre eginez egindako argazkia. Garbiñe Beitia argazkilariak azaldu du dena lainotuta zegoela, eta baita izoztuta ere. Hala aurkitu zuen amarauna ere, urtarrilaren 12an: izoztuta. Bide ertzean, zuhaitzetik hesolarako tartean sortu zuen armiarmak sarea. Zain izango zen armiarma, egindako sarean zein jausiko zain. Naturak horrelako bitxikeriak uzten ditu sarri. Sortu eta desagertu, bizitzaren jarioa. Izan ere, dagoeneko ez dago irudiko sarerik. ■■■





'Elkaar'

BELGIKA



MIKEL IGARTUA BELGIKAN BIZI
DEN BERGARARRA
ARGAZKIAK: M.J. ETA PEXELS

Ez dira gutxi Brusela hiri berezia dela pentsatzeko dauden arrazoiak. Hasteko, Belgikako hiriburu izateaz gain, Europako hiriburu ere bada, eta badauka inguruko hiriburuek ez daukaten aparteko giro bat, bereziki Europako erakundeen auzoan, baina baita hiriko beste hainbat eremutan ere. Erakundeok Europar Batasuneko estatukide guztietako herritarrak erakartzen dituzte Bruselara, eta, hein batean, horregatik da hain ohikoa hiriko kaleetan greziera, poloniera, gaztelania eta halako hizkuntzak horren sarri entzutea. Europako erakundeetan lan egiten dutenei askotan leporatzen zaie burbuila bezalako batean, isolatuta, bizi direla, bertako biztanleekin nahastu gabe eta, askotan, bertako hizkuntzak ere hitz egin gabe.

Esparru horretan, hizkuntzengan, aurki dezakegu Bruselaren bigarren berezitasuna. Bi hizkuntza dira ofizial Bruselan: frantsesa eta nederlandera. Belgika osoan ofizialki erabat elebidun den eskualde bakarra da, gainera. Iparraldeko eskualdean, Flandrian, nederlandera baino ez da ofizial. Hegoaldean,



Seinale bat bi hizkuntzetan, Bruselan.

Valonian, frantsesa bakarrik; salbuespena da Alemaniarekin muga egiten duen eskualdea, Eupen inguruan, non zerbitzu publikoek alemanez ere jarduten duten. Brusela, jakitea komeni, Flandria erdian kokatuta dagoen uharte administratibo bat da; uharte elebiduna, esan bezala.

Edonola ere, hirira gerturatzen den edozeinek laster igarriko du frantsesa gailentzen zaiola nederlanderari. Auzo eta kale jakin batzuetara jo beharra

**BELGIKA OSOAN
OFIZIALKI ERABAT
ELEBIDUN DEN
ESKUALDE BAKARRA
BRUSELA DA**

dago nederlandera gehiago entzuteko, edo tabernariak eta dendariak nederlandera hitz egiten duela ziurtasun osoz jakiteko. Horregatik uste du jende askok ez dela "beharrezkoa" nederlandera ulertzea, are gutxiago hitz egitea, Bruselan bizitzeko. Eta egia da, ez da "beharrezkoa". Hemen eman ditudan bost urteetan ez dut inoiz nederlanderaren "beharririk" izan ezer ulertzeko. Eta, hala ere, hizkuntza ikasteko erabakia hartu dut, hiria hobeto ulertzen laguntzen duela uste dudalako.

Nederlandera eta euskara

Atzerriko ia edozein hizkuntzarekin gertatu ohi zaion moduan, laster konturatuko da euskal ikaslea nederlanderaren eta euskararen artean antzekotasun gutxi dagoela. Hizkuntza germaniarra izatez, ingelesaren eta alemanaren artean-edo kokatzen den hizkuntza dugu, frantses jatorriko mailegu askorekin. Nahiko hizkuntza ezezaguna dela esango nuke, Europako hizkuntza handien ondoan *txiki* ikusten dugulako, beharbada –alemana, ingelesa, frantsesa, gaztelania-. Hala ere, iparraldeko hizkuntza germaniar guztiek –suediera, daniera, norvegiera eta islandiera– batera baino



Alberto I.a erregearen estatua, Mont des Artseko lorategien alboan, eta atzean Plaza Nagusiko dorrea –Grande Place–.

hiztun gehiago ditu nederlanderak, 24 milioi inguru. Izan ere, Bruselan eta Flandrian ez ezik, Herbehereetan ere hizkuntza ofiziala da. Bestalde, iruditzen zait hizkuntzaren izena bera ere badela askotan nahasmen sortzaile: Herbehereetan holandesez eta Belgikan flamenkoz egiten dutela esaten dugu sarri; baina denak dira hizkuntza beraren, nederlanderaren, aldaera. Hizkuntza bera hitz egiten dute, beraz, Amsterdamen zein Ganten.

Hitz baten esanahia

Euskararekin antzekotasun askorik ez, beraz, ez egitura sintaktikoetan ezta lexikoan ere. Bada, ordea, salbuespen den hitz txiki bat: *elkaar*. Euskaraz dakien edozeinek

lotuko du segituan euskal *elkar* hitzarekin. Oso forma antzerakoa dute biek ere, eta esanahia erabat bera da: *elkaar zien* = elkar ikusi; *met elkaar praten* = elkarrekin hitz egin. Harrigarria, inondik ere, hain desberdinak diren bi hizkuntzak, inongo ahaidetasunik izan gabe, izenordain bera erabiltzea ideia bera ulerrarazteko. Hitz *bera* al da, ordea, bi hizkuntzetan erabiltzen dena? Jatorri bera dute?

FUNTSEAN, HIZKUNTZA BERA HITZ EGITEN DUTE AMSTERDAMEN ZEIN GANTEN: NEDERLANDERA

Dirudienez, ez. Lehen esan bezala, ia itxura bera dute, baina kasualitate hutsa da hori; zoritxarrez edo, polita izango litzateke eta noizbait hizkuntza batak besteari hitza ostu izana. Nederlanderaren kasuan, *elkander* hitz zaharragotik eratorria da, eta, euskararen kasuan, *(h)ark-(h)ar* egituratik, Orotariko Euskal Hiztegiak dioenaren arabera. Bi eboluzio prozesu erabat desberdinek, beraz, ia emaitza bera eman dute inongo ahaidetasunik ez duten bi hizkuntzatan.

Hizkuntzak, beti zirrargarri. Hasiera batean oso urruti daudela iruditzen bazaigu ere, beti dago geurera gerturatzen gaituen harribitxiren bat erdaren hiztegitan. ■■■

Garai berrietara egokitu dira elkarteak

XX. mende hasieran sortu ziren lehenengo elkarte gastronomikoak; eta mende erdialdetik aurrera izan zuten loraldia; Debagoienean, behintzat. Urte hauetan guztietan, baina, aldaketa asko izan dituzte. Garai berrietara egokitzea besterik ez zaie geratu bazkide kopuruari eutsi eta elkarteek bizirik irauteko.

Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Elkarrizketatuek emandakoak**.

Kuadrillak elkartu eta mahaiaren bueltan solasaldi luzeak egiteko tokiak dira elkarte gastronomikoak. Soziedadea, txokoa, peña... lurralde bakoitzean modu batera izendatzen dira elkarteak. Donostian sortu ziren: Union Artesana izan zen lehenengoa, 1870ean; 20ko hamarkadan ugaritu egin ziren elkarteak; batez ere, Donostia eta Tolosa inguruan. Bailaran, Oñatiko Txantxiku Txoko izan zen lehenengoa: 1927ko urriaren 4an inauguratu zuten. Gainerako elkarteak Espainiako gerraren ondoren sortu ziren. Nabarmendu behar da elkarten loraldia 70eko hamarkadan gertatu zela. Aritu Kooperatibaren datuen arabera, gaur egun, 132 elkarte gastronomiko daude bailaran. Elkarte gastronomikoak izateaz gain, kulturaren eta kirolaren bueltan lan egiten zuten elkarteak ere baziren. Izan ere, ikuskizunak, mendi ibilaldiak eta karta jokoak antolatzen zituzten. Esan daiteke, izaera hori galdu egin dela elkarte gehienetan.

Gizartea aldatu egin da eta elkarteak egokitu egin dira

Elkarte pribatuak dira, baina irabazi asmorik gabekoak. Gainera, elkarte gastronomikoen oinarria edo bereizgarria autogestioa eta konfiantza da. Izan ere, bazkide bakoitzak kontsumitu duena apuntatu eta ordaindu egin behar du. Ordaintzeko modu horretan aldaketa handiak izan dira azkeneko hamarkadetan. Garai batean, dirua gutun-azal batean sartzen zen; eta, ondoren, elkartearen batzordeko kideek egiten zituzten kalkulu guztiak. Egun, elkarte

"Bazkideen batez besteko adina altua zen, erreleboa falta zen"

NAZARIO GORDOA OÑATIKO TXANTXIKU TXOKOKO PRESIDENTEA

Bailarako elkarte zaharrena da Oñatiko Txantxiku Txoko, 1927ko urriaren 4an sortua, eta Euskal Herriko elkarte zaharrenen artean ere badago. Egun, 54 bazkide ditu elkarteak, eta zortzi bazkide erabiltzaile –ez dira elkartearen jabeak, baina kuota ordaintzen dute eta elkarte erabiltzeko aukera dute–. "Orain dela hamar urte inguru sortu genuen figura hori; izan ere, bazkideak zahartzen ari ziren eta erreleboa falta zen. Figura berri horrekin, elkarteko kontsumoa sustatu dugu", azaldu du Nazario Gordoa presidentea.



Nazario Gordoa.

Erreleboa falta zen

"Orain dela urtebete hartu nuen presidente kargua, eta, egia esan, egoera txarra zen. Hain zuzen ere, bazkideen batez besteko adina altua zen.

Gainera, bazkide batzuk dagoeneko hilda zeuden eta horien erreleborik ez zen egin. Bazkide izandako horien familia artekoekin kontaktuan jarri eta euren partizipazioa saltzeko proposamena egin diegu, zentzuzko prezio batean. Hamar familiatik zortzik baietz esan digute; modu horretan, jende berria sartu dugu elkartera: sei bazkide berri", dio Gordoa.

Txikitoak edo bestelakoak zerbitzatzen zituen langile bat zuen lehen Txantxiku Txokok; egun, hori aldatu egin da. Pertsona bat dute kontratatuta garbitasuna egiteko.

"Gaur egun, familia asko egoten dira elkarrekin"

JUAN LUIS ARKAUZ ARRASATEKO SUDC-EKO PRESIDENTEA

Arrasaten badute berezitasun bat: elkarte gastronomiko guztiak batzen dituen SUDC elkarte.

Berezitasun horrek hainbat abantaila dituela dio Juan Luis Arkauzek: "Elkarte batek lanak egin behar baldin baditu bere lokalean, eta elkarteak itxita egon behar baldin badu, gu geu arduratzen gara bazkide horiek beste elkarte batzuetan banatzeaz". Eta, horrez gainera, SUDC elkarte herriko eragile adierazgarri bat da. Izan ere, jaietako danborrada eta beste zenbait ekitaldi antolatzeaz arduratzen dira SUDCeok.



Juan Luis Arkauz.

Txalapartako bazkidea da

Arkauz bera Txalaparta elkarte gastronomikoko bazkidea da –ez da presidentea; izan ere, bi karguak bateraezinak dira–. Azaldu du Txalapartaren

egoera ona dela: "Familia asko egoten dira elkarrekin; horrek dakarren mugimenduarekin". Emakumeen kasuan, datu zehatzik ez duen arren, azaldu du Txalaparta elkarte aitzindaria izan zela emakumeak onartzen: "1981ean, gure bazkide bat hil egin zen eta haren ordeztu bere emaztea sartu zen. Lehenengoetako emakumea izan zen; gaur egun, hamabost bat emakume daude". Desbiderapenen aurrean, eurek kamerak dituztela dio: "Bazkide guztiok dakigu kamerak daudela".

"Hasierako ekarpena erdira jaitsi dugu, jendea anima dadin"

MAITANE AZKARATE BERGARAKO ALTZASUKO PRESIDENTEA

Orain dela 64 urte sortu zuten Gorlako Altxasu elkarte (Bergara). Eraikin handi bat da, eta bere baitan hartzen ditu pilotalekua, saskibaloia kantxa, erretegia, hamabi lagunendako logela bat...

"Mendizaletasunaren inguruan zebilen guraso talde batek sortutako elkarte da. Egun-pasa egiteko leku aproposa da. Hala, familien plana eguna Altxasun pasatzea izaten zen orduan". Egun, baina, bazkide berrien beharra dute: "Jendea kanpora irteten da eta ez da aste bukaeretan hemen geratzen". Bazkide batzuen bajak izan dituzte, eta ez da



Altxasukoak umeen eguna ospatzen.

inor sartu: "Jendea animatu dadin erabaki dugu hasierako ekarpena erdira jaitea: 1.200 euro da gaur egun Altxasun sartzeko jarri behar den hasierako ekarpena". Erabaki

horrekin lortu dute lau bat bazkide berri sartzea.

Herrira begirako elkarte

"Umeen Eguna antolatzen dugu; baita mendi ibilaldia eta garbantzu jana; Mizpirualdeko nagusiekin egun-pasa egiten dugu elkartean bertan; gaztaina erre jana eta txokolate jana... Zuzendaritzan gauden hamar bazkideen artean egiten dira lan horiek; hala ere, beti dago laguntzeko prest dagoen boluntarioren bat", dio Azkaratek. Gaineratu du "merez" duela Altxasuko bazkide egitea, leku aproposan dagoela iritzita.

"Elkarte auzotarrendako elkargune izatea nahi dugu"

OSKAR MADINABEITIA ESKORIAZAKO MENDIOLA ARIA ELKARTEKO BULTZATZAILEA

Ohikoa ez bada ere, oraindik zabaltzen dira elkarte berriak. Horretan dihardute, esaterako, Eskoriatzako Mendiola auzoan. Mendiolan zegoen erretegian zabalduko dute laster Mendiola Aria kultura gastronomia elkarte. "30 urterako alokairuan hartu dugu, eta nahi dugu 55 bat bazkide izatea. Orain gabiltza lokala atontzen, sukaldean jartzen...", azaldu du Oskar Madinabeitiak.

Auzotarren elkargune

Elkarte berri hori sortzearen helburu nagusia da auzotarrendako elkargune



Sukaldea jartzeko lanetan.

izatea; hain zuzen ere, auzotarrei bideratutako elkarte izan arren, beste auzo batzuetako jendea izateko zabaldu diote aukera bertan bazkide egiteko.

Kultura eragile

Herrian ospatzen diren hainbat jaitan parte hartuko dute Mendiola Aria elkarteak: "San Juan Txikin, Urdelardero egunean... bai, azaldu dugu horiek ospatuko ditugula".

Adin guztietako bazkideak lortu dituzte elkarte berrirako: 30 urtekoak, eta baita 80 urtekoak ere. Espero dute elkarte martxorako erabilgarri izatea.

Bazkideek hasieran egin beharreko ekarpena ere "ez da altua: 2.000 euro jarri behar dira bazkide egiteko Mendiola Aria elkartean", azaldu du Madinabeitiak.

gastronomiko gehienek Aretxabaletako Aritu kooperatibak eskaintzen duen Elkargest zerbitzua erabiltzen dute. "2000. urtean hasi ginen zerbitzua eskaintzen. Inbentarioak egin, kontuak eraman... ikusi genuen beharra zegoela; gainera, orduan, euroa sartu behar zen indarrean", azaldu du Elkargesteko arduradun Gorka Bikuñak. Gogoratzen du kostea egin zela lehenengo elkartearen ordenagailua jartzea: "Apotzagako auzo-etxea izan zen lehena". Poliki-poliki bailarara eta Euskal Herri osora zabaldu dute euren produktua. "Eskertu egiten du jendeak, samurtasunak ematen ditu, eta, gainera, lana kentzen dio batzordeari". Guztira, 500 bat elkarte gestionatzen dituzte; horietatik 100, Debagoienean.

Beste aldaketa nabarmen bat generoari dagokiona izan da. Elkarte gastronomikoak gizonetzkoen tokiak izan dira urte askoan. Garai batean, gizonetzkoak bakarrik izan zitezkeen bazkide, baina, egun, bailarako elkarte guztiek dituzte emakume bazkideak. Arrasaten, esaterako, 1981. urtean, Txalaparta elkarteak lehenengo emakumea onartu zuen. Poliki-poliki, beste elkarteak ere hasi dira emakumezkoak onartzen: Aramaioko Kasatxon, esaterako, orain dela bi urte sartu zen lehenengo emakumea.

Elkarteak, errelebo eske

Elkarteek 70eko hamarkadan izan zuten loraldia; baina, gaur egun, egoera ez da hain oparoa. Badira egoera onean daudenak eta bazkide berriak egiteko itzarote-zerrendak dituztenak; baina nabarmendu behar da elkarte askoren egoera bestelakoa dela. Hala,

2000. URTEAN HASI ZEN ARITU KOOPERATIBA ELKARGEST ESKAINTZEN

70EKO HAMARKADAN IZAN ZUTEN LORALDIA ELKARTEEK; GIZONEN TOKIAK ZIREN HASIERA BATEAN

"Kontsumoak paperean apuntatzen dira"

AINARA INUNTZIAGA ARAMAIOKO IZPIZTEKO BAZKIDEA

Aramaion auzo guztietan daude elkarteak; batzuk Udalaren eraikinetan eta beste batzuk Elizaren eraikinetan. Ainara Inuntziaga Gantzagako Izpizte elkarteko bazkidea da. Auzotarrek bazkide izateko eskubidea dutela dio, batzar orokorrean bozketarik egin gabe: "Kanpokoak izanez gero, aldiz, bozketa egin behar da". Orain dela urte batzuk sartu ziren lehenengo emakumeak –bi–; eta gaur egun, lau emakume dira elkartearen.

Mugimendu gutxi duen elkarte dela dio, eta bazkari bat egiterakoan jendea kosta



Ainara Inuntziaga.

egiten zaiola hara joatea; besteak beste, autoa hartu behar delako hara joateko. Sarrera kuota 3.000 euro inguruan dago, eta hileko

kuota 13 euro da. Auzoko elkarteak izanda, auzoko jaiak antolatzeaz arduratzen dira. Betiko moduan kontrolatzen dute kontsumoa Izpizten: "Paperean idazten da kontsumoa eta elkarteko batzordeak bankutik pasatzen du zenbatekoa".

Kasatxon, emakume bat Inuntziaga, gainera, Kasatxoko bazkidea ere bada; orain dela bi urte egin zen bazkide eta lehenengo emakumea izan zen –gaur egun, bi dira–. Izan ere, ordura arte, gizonetzkoen elkarteak izan ziren.

BAZKIDEAK ZAHARTU DIREN KASUETAN, BAZKIDE ERABILTZAILA MODUKO FIGURAK SORTU DITUZTE

OHOREZKO BAZKIDEEK KUOTA ORDAINTZEN DUTE LEKU BATZUETAN ETA BESTE BATZUETAN EZ DUTE ORDAINTZEN

elkarte askotan "bazkideak zahartu" egin dira eta erreleboa falta izan zaie. Arazo horren aurrean bestelako figura batzuk sortu behar izan dituzte: adibidez, bazkide erabiltzaileak deiturikoak. Horiek ez dute hasierako ekarpena egiten, baina hileroko kuota ordaintzen dute. Eta, trukean, elkarte erabiltzeko aukera dute baina ez dute botoa emateko aukera.

Bazkide erabiltzaile horiekin bilatu nahi dena da elkarteko kontsumoa handitzea; eta figura hori izan duten elkarteek esan dute emaitza onak lortu dituztela.

Ohorezko bazkideen egoera

Ohorezko bazkideen kasua bestelakoa da. Elkarte batzuetan badago ohorezko bazkide edo bazkide erretiratuaren figura; beste batzuetan, aldiz, ez. Ohorezko bazkideen egoera ere ez da bera kasu guztietan: batzuetan, ez dute kuotarik ordaintzen; beste batzuetan, bai; eta badaude erdia ordaintzen dutenak ere. Kasu gehienetan, ohorezko bazkideek ez dute botorik izaten batzar orokorrean.

Nabarmendu da elkarte gastronomikoen oinarrietako bat konfiantza dela. Hala ere, kontsumoetan egoten diren desbiderapenak ikusita hainbat elkarte kamerak jarri dituzte tabernan edo almagazetan. Modu horretan, kontsumitutakoa ordaindu egiten dela ziurtatu nahi dute.

Hasierako ekarpen ekonomikoari dagokionez ez dago datu zehatzik. Badaude 580 euroko ekarpena dutenak; eta baita 6.000 euroko ekarpena dutenak ere.

"Ez dugu kontsumoetan jaitsierarik izan"

AGUSTIN ELORZA ARETXABALETAKO MURUALDEKO PRESIDENTEA

Murualde elkarteko presidentea da Agustin Elorza. 150 bazkide dituen elkarte da Aretxabaletakoa eta egoera onean dagoela dio: "Kontsumoen kasuan, beste urte batzuetako datuekin alderatzen baditugu kontsumoak ikus daiteke ez dela jaitsierarik egon. Gure kasuan jendea badabil eta badago mugimendua".

Ohorezko bazkideak

"Orain dela urte batzuk bazeuden ohorezko bazkideak, 10 bat gutxi gora



Agustin Elorza.

behera; baina, egun, estatutueta figura hori kontenplatuta dagoen arren ez dago ohorezko bazkiderik", nabarmendu du Elorzak. Jende berriaren kasuan, iaz

lau bazkide berri izan zituztela dio, eta aurten, bakarra aurkeztu dela –bihar izango dute batzar orokorra–.

Bikotekidearen aukera

"Iaz aztertu genuen bazkidearen bikotekideak elkarte erabiltzeko aukera izatea. Ez litzateke bazkidea izango, baina bai erabiltzailea, hilean 6 euroko kuota ordainduta – bazkidearen kuota 16 euro da–". Aldaketa horrekin kontsumoak handitzea izango litzateke helburua: "Esan bezala, ez dugu jaitsierarik izan kontsumoetan".

"Sorrerako norabideari heldu behar diogu"

ZUHAITZ UZURIAGA ELGETAKO OZKARBI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Ozkarbi elkartearen zuzendaritza hartu berri du Zuhaitz Uzuriagak. 1967an sortutako elkarte da Ozkarbi. "Kultura, aisialdi eta heziketa gune bat sortzea izan zen helburua", dio Uzuriagak. Egun helburu berarekin jarraitzen dutela dio: "Iaz gehitu genuen euskararen erabilera sustatzeko ekintzak ere aurrera emango genituela. Iaz hausnarketa egin genuen elkartearen eta bazkideek adierazi ziguten gastronomikoaz gain, herrira zabalik eta urtean zehar ekintzak egingo dituen elkarte gura dutela. Sorrerako



Uzuriaga eta presidente ohi Erostarbe.

norabideari heldu behar zaiola esan dute bazkideek eta horretan ari gara".

Gero eta bazkide gutxiago dira eta gazteak erakartzeko erronka dute Ozkarbin:

"Taberna gunea berritu dugu, eskaintza zabaldu, elkarte eguna berreskuratu eta herriko beste talde batzuekin elkarlanean bertso afaria, kontzertuak edo txapelketa moduko ekintzak aurrera eraman".

Bazkide berriak egiteko gazteendako gunea sortu dute, sarrera kuota epeka ordaintzeko aukera eskainiz; bazkideak 65 urte egitean beste lagun bat proposatzeko aukera du; eta, elkartearen uztea gura duen bazkideak bere ordezkoa proposatu dezake, eta horrek sarrera kuotaren erdia ordaindu beharko du.

"70 urtetik aurrerakoak juntatik libratzea erabaki dugu"

TOMAS JAUREGI ANTZUOLAKO EPERRAKO BAZKIDEA

Eperra elkarteak joan zen zapatuan egin zuen urteko batzar orokorra. Hainbat gai izan zituzten mahai gainean; horien artean zegoen bazkide erretiratuen gaia. Tomas Jauregi juntako kidea izan da -zapatua arte, hain zuzen-: "Erretiratu nahi izanez gero, bazkide berri bat bilatu behar dugu, gure ordezkoa izango dena. Mahai gainean jarri genuena izan zen: 70 urterekin, ordezkorik ez izan arren, juntako kide izatetik libratzea; ekarpen bereziak egin behar direnean ekarpen horietatik kanpo geratzea; eta hileko kuota ez ordaintzea.



Eperra elkartearen musean jokatzeko.

Batzar orokorrean ez ziren hiru puntuok onartu, bakarrik onartu zen 70 urterekin juntatik libratzea; beste biak, berriz, datorren urtean aztertzeko utzi ziren".

Erabiltzaile soilak

Kontsumo erabiltzaileak izeneko figura dute Antzuolako elkarte guztiek: "Elkarte batzuetan kuota bat ordaintzen du erabiltzaile horrek; gurean ez da ezer ordaintzen. Gure elkarte baldintza da bazkidearen senar edo emaztea izatea, bazkidearen izateko bikotekidea izatea edo bazkidearen bikotekide egonkorra izatea; hau da, lagun bat ezin daiteke izan kontsumo erabiltzailea".

Hasierako ekarpena egiteko samurtasunak jarri dituzte: 2.300 euroren %80a 36 hilabetetan ordaindu daiteke. ■■■



AITOR OROBENGOA ORTUBAI

Ez dezagun gure burua engainatu

Urte amaieran Jaurlaritzak Euskadiko 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (2030-ZTPB) onartu du. Bilera horretan, indarrean dagoen 2020-ZTPB Planaren "balantze ona" egin du Jaurlaritzak.

Benetan deigarria suertatzen zait halako baikortasuna. Izan ere, 2020-ZTPB Plana indarrean egon den bitartean honako atzerapauso nabarmen hauek eman ditu Euskadik:

-Ikerkuntza-inbertsioari dagokionez, Europako lurralde aurreratuekiko gero eta atzerago gaude, barne produktu gordinaren %1,85 besterik ez dugulako erabiltzen.

-Mundu osoan ekintzailetasuna neurtzen duen GEM estatistikan berriz ere atzera egin du Euskadik.

-Euskadi eta Luxenburgo dira Europatik petrolio iturrien mendekotasun handiena duten lurraldeak; eta Euskadiko energia berriztagarrien erabilera maila Estatuaren batez bestekoaren azpitik dago.

-Euskadik sei postu atzera egin du Europako Batasuneko lurralde-lehiakortasun adierazleetan: Europako 125. lurralde lehiakorrena da.

-Europako Batasunak egin duen azterketa berri batek dio Euskadik 22 postu galdu dituela Europako lurraldeen

EUSKADIK 22 POSTU GALDU DITU EUROPAKO LURRALDEEN BERRIKUNTZA SAILKAPENEAN

berrikuntza sailkapenean. 132. postuan gaude; alegia, 3. mailako lurralde bihurtu gara.

2030-ZTPB Plan berriaren ikuspena da "Euskadi Europako eskualde aurreratuen artean jartzea" berrikuntzan. Alegia, mirari baten bitartez, 132. postuan dagoen gure Euskadi Jaurlaritzako 2030-ZTPB Plan berriak "Europako eskualde aurreratuen artean jartzeko asmoa du".

Halako inkongruentzien aurrean, honako galdera hauek datozkit burura:

-Jaurlaritzako zientzia arduradunak inkontzientek dira edo, besterik gabe, engainatu egin nahi gaituzte?

-Ez al da hobe izango gure egoera kritikoaz jabetzea eta orain artean ondorio txarrak eman dituzten industria politikak aldatu? ■■■

EZTABAIDA

'Januhairy', ilea aldarrikatuz

Sekulako eztabaidak sortzen dira emakume bat depilatu gabe azaltzen den bakoitzean. Noiz arte? Hain zuzen ere, horixe bera aldarrikatu nahi du *Januhairy* mugimenduak.



LEIRE IRIA
GAZTEA

"Mugimendu honek bi helburu dituela esango nuke: alde batetik, emakumeen ez depilatzeko erabakia denok errespetatzea eta normalizat jotzea; eta, bestetik, nor bere buruarekin eroso sentitzea. Azken hau da zailena, eta oraindik bete ez dudana".



MADDI GURIDI
HERRITARRA

"Halako mugimenduak beharrezkoak dira. Denok dugu ilea eta zerbaitetarako dago dagoen lekuetan; depilatu edo ez norberaren erabakia izan behar du, ez gizarteak inposatutako zerbait. Bide luzea dugu oraindik egiteko, baina pauso bat da".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



IKER AGIRRE

Asko dugu jokoan

Bada denbora diruak bizitzaren erdigunea hartu duela eta esango nuke ez dela bakarrik azken mende honetako kontua. Gure kulturaren apustuak presente egon dira, baina ez gaur egun izaten den intentsitate berean.

Egun, joko areto bat daukagu Arrasaten, dirua, droga eta beste zenbait kontu mugitzen diren zona bilakatuz. Hala ere, ez nuke fokua horretara mugatuko; joko aretoez aparte, badaude makina diru irenseak eta modu birtualean jokatzeneko *app*-ak ere.

Ez gara kontziente honek guztiak eragin duenaz; zorrak izatetik, norberaren buruaz beste egitera ere iris gaitzke. Egoera honek asko kezkatzen nau eta herri moduan zerbait egin beharrean gauden sentsazioa daukat. Gure herriaren oraina eta etorkizuna irabazteko dugulako! Legea badakigu noren alde dagoen, baina Arrasateko Udalarri ausardiaz jokatzeneko eskatu nahi diot, makinatxoak dituzten tabernarietako makina horien atzean dauden istorioei erreparatzeko, eta, azkenik, herritarrei arduraz jokatu eta aktibatzenko.

Mendekotasuna minarekin hasi eta amaitzen da... ■■■



MARIÑE JAUREGI
HERRITARRA

"Ileak gorpuzten parte dira, eta ez generoen parte. Dena dela, inizatiba hau urte osoan zehar egin beharreko mugimendu bat dela pentsatzen dut, baina ohituta ez dauden pertsonak konturatzeko modu ona dela iruditzen zait. Hasteko modu proposa da inizatiba hau".



MAIDER ARSUAGA
LANGILEA

"Emakumeek ileak dituzte, gorpuzteko parte dira eta normalizatu beharra dago. Norberaren hautua da depilatu edo ez. Gizarte osoak egin beharreko lan bat da eta halako ekimenak beharrezkoak dira. Ea *Januhairry* urte eta gizarte osora zabaltzen den".

Kultura demokratiko falta



MIKEL LEZAMIZ SOZIOLOGOA

Euskaldunok eta katalanek ezin dugu herri bezala erabaki nahi dugun etorkizuna. Espainiako alderdi politikoek diote Autonomia Estatutua botatzerakoan erabaki genuela nahi genuen etorkizuna eta horrekin gure eskubideak onartuta ditugula.

Bai zera! 1979an botatu zen erreferenduma euskaldunontzat inposatua izan zen, "okerrik txikiena", eta, gainera, %58k bakarrik botatu zuen. Orduan ere, Alianza Popular alderdiak –gaurko eskuin kontserbadorea– aurka botatu zuen, Espainiaren batasuna apurtu egingo zuela argudiatuz.

Espainol gehienek ez dakite zer den demokrazia, eta kultura zapaltzailea daukate. Espainia aldean ez dute onartzen herriak daukala boterea, eta *demokrazia* horixe bera da: *herriaren boterea*.

Politikari espainolei begiratuta ere ikusten da Madrilgo Kongresuan nolako oilategia muntatzen duten, azken urteetan herri atzeratu ikuspegia emanaz, bakoitzaren hitza eta eskubideak errespetatu gabe.

Duela hogeita hamar urte, ingeles batek esan zidan Espainian ez zegoela kultura demokratikorik eta lau edo bost belaunaldi pasatu behar zirela erregimen autoritario barik eta pseudodemokrazia politikoan biziz. Beraiek duela lauhun urtetik bizi direla demokrazian Britainia Handian eta horregatik daukatela kultura demokratikoa.

Baita ere egia da duela zortziehun urte, 1215ean, Britainia Handian Magna Carta izenpetu zuela orduko erregeak, Joan Lurgabeak, eta baroien eta Elizako gotzainen artean errege feudalak errespetatu zitzan beraien eskubideak eta herritar guztiak. Eta esaten da une hura kontsideratzen dela Europar Zuzenbidearen oinarria; mundu osoko konstituzio gehienek Carta hori hartzen dute abiapuntutzat.

Ezin dut ziurtatu euskaldunok demokratagoak garenik, baina historian zehar ikus genezake hemen ere bizi izan dugula kultura demokratikoa, Zuzenbide Piriniarrean ikusten denez. Dakigunez, erromatarren etorreraren aurretik Pirinio mendien ipar eta hegoaldean, urteetan zehar, ohiturak eta usadioak izan ziren herri eta

auzo bakoitza antolatzeke, eta horiek lege bihurtu ziren; foruak edota eskumenak deritzenak. Erregeek eta jauntxoek ere sinatu egin behar izaten zuten, errespetatu egingo zituztela adieraziz. Behetik gora egindako legedia da, hiru zutabetan oinarritzen dena: batzarreak edo kontzejuak; auzolana; eta lur komunalak edo herri lur eta basoak. Hiru zutabe hauek oraindik herri eta auzo batzuetan funtzionatzen dute; batez ere, Araban eta Nafarroan.

Baina idatzita agertzen diren lehen foru orokorrak XI. mendean izenpetu ziren Bizkaian, eskumenak unibertsalak izanik; hau da, guztientzat –beste legedi askotan, eskumenak jauntxoentzat bakarrik izaten ziren–. Erregimen foralak 1876ra arte jarraitu zuen, Hirugarren Karlistaldiaren ondoren Alfonso XII.ak ukatu zuen arte. Ordura arte, dakigunaren arabera, errege eta jauntxo guztiak sinatzen zuten errespetatu egingo zituztela Bizkaiko foruan agertzen ziren eskumen guztiak.

Bestalde, 1238an, Fuero General de Navarra edo Foru Zaharra izenpetu zuen Teobaldo I.a erregeak, eta nafarren eskumenak eta

foruak errespetatuko zituela sinatu zuen.

Beraz, guk ere Konstituzioa bezalako edota britainiarren Magna Carta delakoa bezalakoa daukagu duela zortziehun urtetik idatzia.

Hala ere, Ingalaterran laster ikusiko dugu berriro Eskozian onartuko duten ala ez independentzia-erreferendum bat egitea, Britainia Handia Europatik irteten denean hilabete honen bukaeran, zeren eta eskoziar gehienek Europan jarraitu nahi baitute. Boris Johnson lehen ministroak oraingoz dio berak ez duela onartuko beste erreferendumik Eskoziarentzat. Ikusiko dugu afera hau nola bukatzen den, zeren eta Euskadirekin eta Kataluniarekin zerikusi handia baitauka erabaki horrek. *Brexit*-arekin Eskozian eta Ipar Irlandan alderdi abertzaleak gorantz doaz, europar sentitzen baitira.

Gurera etorrita, gobernu progresista sortu berriak – alderdi sozialistaren eta Unidas Podemosen artean – gogor eutsi beharko dio ERCrekin eta EAJrekin

egindako hitzarmena betetzeko. Eskuin kontserbadore hirukotea zarataka edukiko dute belarri atzean, inolako lotsarik gabe, ezkerrekoek hartzen duten edozein erabakirekin. Eta garbi dagoena da Espainian ez dagoela Montesquieuk eskatzen zuen hiru botereen banaketa: legegilea, exekutiboa eta judiziala. Epaile gehienak, batez ere Auzitegi Gorenekoak, Alderdi Popularraren aginduetara daude eta lotsarik gabe jarraitzen dituzte beraien iritziak gobernu berriaren, Europaren eta abertzaleen aurka.

Egoera politiko guztiz mugitua izango dugu datozen urteetan eta zail ikusten dut Espainiako Estatuan lau urterako gobernua edukitzea. Ikusiko dugu, baina bi urte barru berriro hauteskunde orokorretara deituak izango garelakoan nago, edota Sanchezen aurkako zentsuramozioa izango dugula. Sanchez bi botogatik bakarrik izendatua izan da lehendakari eta alderdi eta koalizio askoren botoa izan du, baina zaila izango du guztiak alde mantentzea. ■■■

ZAIL IKUSTEN DUT ESPAINIAKO ESTATUAN LAU URTERAKO GOBERNUA EDUKITZEA

"Bertso eskolen helburua ez da txapeldunak sortzea"

BEÑAT GAZTELUMENDI GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELDUNA

Punta-puntako bertsolarien errimaz eta doinuz bete zen Aramaio, Bertso Egunarekin. Kantuan ibili zenetako bat Gipuzkoako txapelduna izan zen. Plazak eta saio txikiak "gustuko" ditu Gaztelumendik, nahiz eta txapelketetan "eroso" sentitzen den. Transmisio bidez jaso du bertsolaritzarako zaletasuna.

Testua: **Mireia Bikuña Madrid**. Argazkiak: **Ibai Zabala**.

Transmisio bidez heldu da bertsolari izatera. Lan eginez eta abenduaren 14ko finaleko bertsolari onena izan zelako da Gipuzkoako txapelduna. Barru-barrutik bertsoak egiten dituen eta bere buruarekin oso kritikoa den bertsolaria da Beñat Gaztelumendi.

Jakinekua zen Xabier Gaztelumendiren semea eta Unai Gaztelumendiren anaia zela. Berak aldarrikatu du "Pilarren semea" ere badela.

Hilabete pasa da txapela bigarrenkoz jantzi zenuenetik. Baretu da egun haietako eta ondorengoetako zurrunbiloa?

Esango nuke baretzen doala, aktualitateak abiadura handia duelako. Abenduko ekitaldi bat dagoeneko ez da albiste urtarrilean. Dena den, sentsazioa daukat oraingo finala duela lau urtekoa baino askoz gehiago jarraitu zuela jendeak. Nik, behintzat, zorion mezu askoz gehiago jaso ditut. Eta horietako asko, kaleko bertsozaleek emandakoak. Guztion ahotan egote hori ez da erraza eramaten. Bereziki, ez nagoelako ohituta horrenbesteko oihartzuna edukitzera. Dena den, politik izan dira aste hauek; eta asko eskertzen ditut mezuak.

Gipuzkoako txapeldun zaren aldetik, erreferentzia bat izango zara bertso eskoletako ikasleendako. Ardura handia da? Kezkatu egiten zaitu horrek?

Kezkatzen nauena da bertso eskoletan daudenek pentsatzea uneren batean Gipuzkoako edo Euskal Herriko txapeldun izatera helduko direla. Egunen batean kanpaikada eman eta txapela jantziko dutela. Oso zaila da hori gertatzea. Iruditzen zait desitxuratze handia dagoela kanpora begira duen pisuaren eta bertsolaritzaren barruan duen pisuaren artean. Era berean, ardura bat ere bada. Izan ere, txapelketen ostean, bertso eskoletako izen-emateak igo egiten dira. Hori da txapelketak antolatzearen arrazoietako bat. Dena den, azpimarratuko nuke bertso eskolen helburua ez dela txapeldunak sortzea. Giroa sortzea, herrian eragitea... horiek dira helburuak.

Illunben jantzitako txapelak dio finaleko bertsolari onena izan zinela. Baina zer esan gura du txapeldun izateak?

2019ko txapelak eta 2015ekoak ez daukate zerikusirik. Nik neuk sentsazio ezberdinekin jantzi nituen. 2015ekoa gaztetatik hasitako ibilbidearen gailurra izan zen. 2019koa oso bestelakoa izan da. Izan ere, lau urte hauetako joan-etorria oso



gorabeheratsua izan da niretzat. Zalantza asko eduki ditut plazetan eroso egoteko. Ibilbidea ez da oso lineala izan eta une askotan ez dut asmatu. Horregatik guztiagatik, abenduko txapela sari moduan jaso nuen. Asko bete ninduen. Bi txapel, bi sentsazio, bi sentimendu.

Ze erronka, asmo edo helburu dituzu datozen lau urteetarako?

Txapelketa guztiak dira intentsuak. Hasieratik bukaerara arte muturreko egoera batean sartuta egoten gara. Orain, horren gaineko digestioa egitea tokatzen da, eta horrek ere denbora eskatzen du. Aurrera begira? Plazan ibiltzeko gogoia daukat. Saioak egiteko, eta saio bakoitza bizitzeko. Hurrengo txapelketara begira baino gehiago nago egunerokotasunari begira.

Txapelketak eta finalak bertsoaritzaren arloetako bat dira. Beste bat dira herrietan, auzoetan, elkarteetan... egiten diren saioak. Azken horiek beharrezkoak dira?

Datuek eta azterketek erakusten dute txapelketetan entzule asko elkartzeko dela, baina bertsozale askoz gehiago joaten dela urtean zehar egiten diren plazako saioetara, tamainaz txikiagoak diren arren. Hortaz, beharrezkoak dira. Ni neu oso gustura ibiltzen naiz plazan. Nire lekua topatu dut, eta uste dut entzuleak badakiela zer espero dezakeen nitaz.

Samurragoa egiten zaizu entzulea asebetetzea edo zure buruarekin gustura geratzea?

Entzulea asebetetzea. Nire buruarekin oso kritikoa naiz. Ez naiz gustura geratzen den horietakoa, baina esango nuke bertsolari guztiak garelako perfekzionistak. Gehienetan, bat-batean aritzen gara, eta beti geratzen zaigu sentsazioa ez garelako heldu esan gura genuen hori esatera. Gertu geratu garelako, baina helmugara heldu barik. Eta, hain zuzen ere, horrek ematen dit bidean aurrera egiteko indarra. Nik uste dut norbere buruarekin kritikoa izaten jakin behar dela. Baina, bat-batekotasunaren soka finaren gainean oinez gabiltzan bitartean, ekilibristak gara eta gauza batzuk barkatu egin behar dizkiogu gure buruari.

Egin duzu inoiz bertso borobilik?

Borobilik ez. Hainbat unetan, bete nauten bertsoak bota ditut. Gustura utzi nauten bertsoak. Gaia eta doinua ditudanean, bukaera eta pare bat errima pentsatzen ditut, baina sekula ez da jakiten bertsoak nondik nora eramango zaituen. Askotan, betetzen zaitu bertsoa ongi bukatu izanak eta esan gura zenuena esateak. Baina bukatu bezain pronto konturatzen zara badagoela bertso hori hobetzeko modua. Eta hori oso frustragarria

izaten da. Bertso borobilak, osoak egitea oso zaila izaten da.

Posible da saio batean erregularra izatea hasieratik bukaerara?

Niri askotan esan didate bertsolari erregularra naizela, baina nik ez dut horrela sentitzen. Adibidez, txapelketetan, komenigarria da jakitea saioak hiru bat ordukoak direla, eta erregularra izatea oso zaila dela. Ariketa batzuk gustagarriak izango zaizkigu, eta beste batzuk ez. Kudeaketa oso inportantea da halakoetan: bertso ona edo txarra egiten duzunean, egoerak buelta eman dezakeela kontziente izan behar da. Finaleko lehenengo ariketetan ez nintzen fin ibili, baina banekien egoera aldatuko zela, eta une hori iritsi arte mailari eutsi egin behar niola.

Edozein gaik balio du bertsoetan egiteko? Politikoki zuzenak ez diren gaiak ere bai?

Balio, balio dezake. Nik uste dut talka bi gauzen artean dagoela: norbere sorkuntza pertsonalaren eta sorkuntza horren publikotasunaren artean. Alde batetik, sorkuntza bezala erakargarria izan daiteke edozein gairi buruz kantatzea, baina, beste alde batetik, bertso horiek publiko egin gura dituzun pentsatu behar da. Talka etikoa dago hor. Gipuzkoako Txapelketan eduki ditugu gai batzuk politikoki zuzenak ez direnak: arrazismoa, matxismoa... Egunerokotasunean eskura ditugun gaiak, baina diskurtsoan esaten ausartzen ez garen gaiak.

Bat-batekotasunari aurre nola egiten diozuen ikustea mirezgarria da. Dohain bereziak dituzue bertsolariak?

Nire ingurukoek azkarrago hartzen zituzten kontzeptuak, eta bertsoak segituen asmatzen zituzten. Nik neuk erantzun azkarrak emateko gaitasuna ez dut inoiz eduki. Hortaz, bertsoetarako oso mugatua naizela sumatu dut beti. Baina abantaila bat izan da niretzat. Nire mugak presente eduki ditut beti, eta horiek disimulatzeko nolako jarrera hartu behar nuen erabakitze eskumena izan dut. Dena den, ez dut uste bertsolariok dohain bereziak ditugunik. Beti esan izan dut hiruzpalau eskolarekin edonor dela zortziko txiki bat kantatzeko gai. Hortik aurrera, norberaren lanerako eta ikasteko gogoia dago.

Anaia eta zu bertsolariak eta aita bertso eskolan ibilitakoa. Bada, etxean ez duzue bertsoetan egiten.

Ez. Bertsoetan aritzeko ez zaigu leku naturala egiten. Egiten dugu berba bertsoaritzaren gainean, baina ez dugu kantatzen. Aitak beldurra dio jende aurrean kantatzeari. Ikara ematen dio. Hortaz, berarengandik ez genuen jaso oholtza



Gaztelumendi, bertsotan, Aramaioko Bertsu Egunean.

**"GIPUZKOAKOAK BI TXAPEL
EZBERDIN IZAN DIRA: BI SENTSAZIO,
BI SENTIMENDU"**

**"BERTSOTARAKO OSO MUGATUA
NAIZELA SUMATU DUT BETI; BAINA
ABANTAILA IZAN DA HORI NIRETZAT"**

**"AITARENGANDIK JASO NUEN
BERTSO MUNDUKO PARTE IZATEKO
GRINA; HARK LANDATU ZUEN HAZIA"**

gainean egoteko gogoia, baina bai bertso munduko parte izateko grina. Bertso eskoletan ibilitakoa da aita. Gu bizi garen lekuak ez dauka euskal komunitate trinkorik, eta bertso eskolak euskaraz jarduteko askatasun esparru bat ematen zion. Hori da harengandik jaso genuena anaiak eta biok. Gerora, beste bide bat hartu genuen bertsolaritzaren munduan. Nahiago izan genuen bat-batekoa eta oholtza gaineko bertsolaritza. Baina honen guztionen hazia aitak landatu zigun.

Finalaren agurreko bertsoan ozen aldarrikatu zenuen Pilarren semea ere bazarela!

Gaur egun ere bai, baina gure aurreko belaunaldietan are gehiago, oso markatuta zeuden genero rolak. Gure kasuan, aitak sartu gintuen bertso munduan, baina amak egin zituen txofer lanak, bertso eskolara eta txapelketetara. Eskaintza hori egiteko beharra sentitu nuen. Aita izan zen txapel emalea eta anaiarekin bertsotan egin izan dut. Gertukoek ezagutzen dute gure ama, baina gehiengoarendako erabat anonimoa zen, finalaren egunera arte. Eta, egia esateko, amak susto galanta hartu zuen azken agurra entzun zuenean. Oraindik ere, buelta eman ezinda dabil, baina aitortza benetan eskertzen duela badakit.

Bertso eskolan hazitakoa izanik, esango zenuke, beharrezkoak direla, bertsolaritzak iraun dezan?

Bai. Anaia eta biok bertsotan hasi ginenean ez zegoen bertso eskolarik gure inguruan. Hastapenak Igeldon egin genituen, eta ostean, Bilbora ikastera joan ginenean, Santutxuko bertso eskolan. Bertso eskolen bila ibili behar izan genuen, gure espazio naturalean ez zegoelako hartarako aukerarik. Inbidia ematen didate bertso eskolak dituzten herriek, eta Debagoienean zorionekoak dira. Bertso eskolak herriarendako tresnak dira: saioak antolatu, herriko bertsolariak kantuan ipini... Egun, lau bertso eskola daude Donostian, eta horrek izugarri poztzen nau. **2021ean, Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatuko da. Hor ikusiko zaitugu?**

Urruti ikusten dut oraindik, baina azkar helduko da. Ez daukat gorriz markatuta txapelketa hori, baina duela bi urteko finaleko arantza atera gurako nuke. Egindako txapelketarekin oso gustura geratu nintzen, baina finaleko saioarekin ez nuen asmatu. Hortaz, gurako nuke 2021eko Txapelketa Nagusia aurrekoa baino kokatuago hasi. Bestalde, uste dut bertsolaritzak dakartzan aldaketa handiak orduan ikusiko ditugula. ■■■

Ezin dut begirik bildu!

INSOMNIO ARAZOAK



IÑAKI PEÑA BARNE-MEDIKUA
ARGAZKIA: ANNIE SPRATT

Insomnioa edo loezina kantitatez gutxiegiako loa, haren gabezia edo kalitate txarra islatzen duen sintoma da. Egoera luzatu eta kroniko bihurtuz gero, gaixotasuntzat ere jo dezakegu.

Biztanle helduen %15-30 inguruk pairatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan 350.000 herritarrek, Nafarroako Foru Erkidegoan 97.500 lagunek eta Ipar Euskal Herrian 45.000 herritarrek, gutxi gorabehera. Guztira, milioi erdi pertsonak Euskal Herrian.

Intzidentzia ere handiagoa izan daiteke, eta kalkulatu da momentu batean edo bestean jendearen erdiak insomnioa eduki dezakeela munduan urtean zehar.

65 urtetik gorakoak kaltetuagoak dira gazteagoak baino. Emakumezkoek gehiagotan daukate gizezkoek baino.

Umeengan ohiko arazoa izaten da, eta pediatriako kontsultetan bisiten %25-30 inguru gai horrekin lotutakoak izaten dira.

Fisiologikoki, bizitzaren hasieran loaldia dezente luzeagoak izaten ditugu bizitzaren azken urteetan baino. Jaioberriek hamasei ordu arteko loaldia egiten dute egunean zehar, lau orduko lau tartetan.

Hortik aurrera, lo orduak murrizten joaten dira: 10-12 ordu haurtzaroan eta 6-7 ordu zahartzaroan.

Loaren kantitatea eta kalitatea egokiak ez izateak ondorio garrantzitsuak ekar ditzake haurrengan. Arazo horiek kontzentrazioan eta ikasketa prozesuan edo umearen garapenean eta hazkunderan sor daitezke. Baita ere gurasoen aldarlean eta osasunean, jakina.

Horren tratamendurako, jokabide-terapiak erabil daitezke –Richard Ferber, Eduard Estivill–, baita bestelako metodo batzuk ere – Ina May Gaskin, Williams Sears, Carlos Gonzalez, Penelope Leach edo Tracy Hogg-ena–.

Bi insomnio mota

Insomnioa, orokorrean, bi mota nagusitan sailka dezakegu: alde batetik, hasierako insomnioa edo lo hartzeko arazoak izan daitezke. Motarik ohikoena da. Bestetik dago erdialdeko edo tarteko loezina: gauaren erdian esnatu ostean lanak ematen dituen berriz ere loak hartzeko.

Hainbat eritasun daude lotuta sintoma horrekin. Horietako asko dira neuropsikiatriaren arlokoak; depresioa, antsietatea, eskizofrenia eta demenzia, esate baterako. Beste esparru batekoak dira digeritze-



LOEZINAK GEHIEGIZKO LOGURA, ALDARTE TXARRA, DEPRESIOA ETA SUMINKORTASUNA ERAGITEN DITU

aparatuaren arazoak, arnas eta bihotz gaixotasunak, apnea sindromea, min kronikoa, menopausia, hipertiroidismoa, eta abar.

Halaber, hainbat farmakok eragina dute loan; kortikoideak eta salbutamolak, besteak beste. Drogek ere bai; kokainak eta anfetaminek, adibidez.

Kafeina, nikotina eta alkohola ere aipatzekoak dira. Eta, beste faktore batzuen artean, estresak eta lan txandean aldaketak ere eragina dute.



Loezinaren ondorioak dira egunez gehiegizko logura edo hipersomnia izatea, suminkortasuna, aldarte txarra edota depresioa. Eta horrek guztiak auto istripuen arriskua areagotzen du, besteak beste.

Tratamendua

Tratamendurako, bentodiazepinak – Lormetazepam, Diazepam, Lorazepam– eta beste multzo batzuetako farmakoak erabiltzen dira –Zolpidem eta Trazodona–.

Ezaguna da lehenengo multzoko botikek ekar dezaketen menpekotasuna, baina horien kontsumoa oso hedatuta dago, adineko emakumeen artean asko.

Farmakologikoak ez diren neurrien artean, loaren higieena zaintzea dago. Oheratu aurreko orduetan estimuluak murriztea, ordutegi ordenatuak edukitzea, ariketa fisikoa eta erlaxazio teknikak egitea...

Belarrak ere lagungarriak izan daitezke; ezki-lorea, belar

bedeinkatua –*Valeriana officinalis*–, izpilikua, kamamila eta marihuana kasu. Azken horrek dituen albo-ondorioak eta arriskuak ahaztu gabe.

Bestela, bitxikeria moduan, badago insomnio familiar zitala izeneko gaixotasun hereditario bat. Oso pronostiko txarra dauka. Oso kasu gutxi detektatzen dira urtean, baina kontua da munduko kasu guztien erdia Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan daudela. ■■■

Arte martzial bat gehiago

'KAJUKEMBO CLOSE COMBAT'-A

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: IKER LETONA

Arrasaten, Musakolako kiroldogian, arte martzial berri bat irakasten hasi dira duela gutxi: *kajukembo close combat*-a. Arte martzial ezberdinen arteko fusio bat da, baina oinarria *kajukembo* diziplinan dauka. Paulino Martin alacantarrak sortu zuen *kajukembo close combat*-a: "15 urtez *kajukembo*-a ikasten aritu nintzen, baina hutsune batzuk ikusi nizkion; lurreko lana, adibidez. Hasiara batean, bakarrik hasi nintzen, baina gero, sare sozialen bitartez zabaltzen joan nintzen, bideo bitartez, eta geroz eta jende gehiago hasi zen interesatzen".

Hala, 2011n akademia sortu zuen ofizialki: lehenik, maila nazionalean; eta gerora, nazioartean. "Gaur egun, 400 afiliatu baino gehiago ditugu Espainian, eta munduan zehar ere jende asko: Frantzia, Portugalen, Argentinan, AEBetan, eta abar. Hazten goaz apurka-apurka".

Laudiotik Arrasatera

Martin Laudiora (Araba) joaten da sei hilabetean behin eskolak ematera, Arabako ordezkariak ikasleei diziplina hau irakatsi ahal izateko. Hain zuzen ere, horri esker hasi dira Arrasaten ere diziplina hau irakasten. "Internet bidez jakin genuen *kajukembo close combat* arte

martziala Laudion irakasten zutela. Kuriositatea piztu zitzaigun, eta eurekin harremanetan jarri ginen. Paulinorekin berarekin elkartu ginen eta gu ere erruberran sartu gara dagoeneko, ikasi eta ikasi. Orain, Paulinorekin ikasitakoa erakusten dugu Musakolan", azaldu du Iker Letonak, diziplina honetako Gipuzkoako ordezkariak.

Hutsetik hasi dira

Letonak berak eta Aitor Mondragonek eskaintzen dituzte saioak, kenpoarekin tartekatuta. Halere, Letonak aitortu du arte martzial berri honi neurria hartzen ari direla oraindik. "Hutsetik hasi gara. Guk ohitura eta dinamika batzuk baditugu, baina honek gu ohituta ez gauden beste dinamika batzuetan sartzera eraman gaitu. Izan ere, urte asko daramatzagu kenpoa egiten, eta gure gorputzek lan egiteko modu batzuk dituzte asimilatuta. Hori dela eta, esango nuke hasiberri bati baino gehiago kostatu zaigula. Honek gure konfiantza horretatik aterata egiten gaitu, eta beste alor

**MARTITZENETAN ETA
EGUENETAN EGITEN
DITUZTE SAIOAK,
MUSAKOLAN,
18:45ETIK 20:00ETARA**

batzuetan sakontzen dihardugu orain, lan egiteko modu batzuk aldatuta", azpimarratu du.

Defentsa pertsonala oinarri

Defentsa pertsonalean oinarritutako arte martziala da. Hala ere, honek ez dauka lehiaketarik. "Sistema gehienek kata lantzen dute, mugimenduak airera eginez. Gurea gehiago zentratzen da kontaktuan, eta lankideekin batera lantzen da. Ahalik eta egoera errealean lantzen saiatzen gara. Ukabilkaden, heldualdien, ostikaden, eta abarren aurkako teknikak lantzen ditugu, baita erasorako teknikak ere, noizbait gure burua arrisku larrian ikusten badugu aplikatu ahal izateko", adierazi du Martinek.

Letonak gaineratu du kirola egiteko beste modu bat dela. "Oso kirol esplosiboa da, gorputza lantzeko ondo dago, eta dibertigarria da. Bestalde, defentsa pertsonaleko oinarri batzuk edukitzea ondo dago. Ahal izanez gero, saihestea da onena, baina defendatzea tokatuz gero, beti dator ondo teknika hauek barneratuta edukitzea".

Eskolak hasita dituzte dagoeneko, baina interesa duen edonorendako ateak zabalik dituztela azaldu du Letonak. "Martitzenetan eta eguenetan Musakolan egoten gara, 18:45etik 20:00etara. Gerturatu besterik ez duzue". ■■■



Kajukembo-a praktikatzen duten hainbat kide. Ezker-ezkerrean, Iker Letona; eta Paulino Martin erdian, gerriko gorriarekin.



Lurreko lana da arte martzial honen bereizgarrietako bat.



Defentsa pertsonalerako hainbat teknika lantzen dituzte.

Potentzial handiko materiala

BLOKE GEOMETRIKOAK



LEIRE ARANA IKASTOLAKO IRAKASLEA
ETA MATEMATIKAN.EUS-EN EGILEA
ARGAZKIAK: PXFUEL.COM ETA FLICK.COM

PUNTUAren bosgarren urteurrenean, hamabosgarren ekarpena duzue hau. Matematika manipulatioen ikuskera islatzeko helburuarekin hasi nintzen; eta horretan jarraitzeko asmoz idazten dut azken hau. Artikuluok birpatsatzean ikusi dut pare bat kasutan material konkretuak izan direla hona ekarri ditudanak. Eta hara non, ezinbestekoen zerrendako materialak izan direla konturatu naiz: erregletak eta polikuboak. Zergatik ekarri ditudan horiek konkretuki? Bada, ikaragarri erabilgarriak direlako kontzeptu matematiko asko eta asko fisikoki eta modu ikusgarrian eta ukigarrian gauzatzeko.

Hari horri tiraka, beraz, aukeratu dut gaurko gaia. Beste ezinbesteko horietako bat aurkeztu nahi dizuet oraingoan. Hemen daude zuekin: bloke geometrikoak! Ez diegu zuzenean bloke geometrikoei helduko, hala ere. Utzidazue *puzzle* hitzetik hasi eta ibilbide laburra egiten blokeetara iritsi aurretik.

Bi eta hiru dimentsioko puzzleak

Puzzle hitza entzun eta nori ez zaio burura txikitako irudia etortzen? Etxe ia guztietan aurki dezakegun jolasa da, lasaitasunean eta giro kontzentratuetan egitekoa. Gozagarria, kasu gehienetan.

Puzzleek gure gaitasun logiko eta espazialak aktibatzen dituzte bete-betean; orientazioa, posizioen estimazioa, estrategia diseinatzea, behaketa, parekatzea, kontrastatzea, proba-errorea metodoan jardutea... Askok dira aktibatzen diren trebeziak, eta horiek guztiek egiten dute puzzleekin jardutea benetan aberasgarria izatea.

Hitzaren beraren esanahia hiztegian begiratzuz gero ikusiko dugu: *Joko mota, modu egokian elkartu ondoren irudi bat eratzen duten atal txikiz osatua dena*. Definizioan agertzen den irudia, normalean, pieza kopuru zehatzeko gainazal lau gisa irudikatuko dugu gehienok. Eta hortxe dago gaur azpimarratu nahi dudana gakoetako bat. Ez duela hala izan beharrik; alegia, puzzleen mundua benetan zabala baita.

MATEMATIKAREN ATAL GUZTIAK JORRATU AHAL IZANGO DITUGU BLOKE GEOMETRIKOEKIN

Hasteko, urratzen dituen dimentsioei errepara diezaiekegu. Ohiko puzzleak bi dimentsiotan garatzen direla esan dugu, baina egon badaude hiru dimentsioak urratzen dituztenak ere. Wikipedia famatuaren logoa bera!

Instrukzioak jarraituz eraikitzen diren blokeetako eraikuntza jolasak ere puzzleak direla esan genezake, eta baita maketak eraikitzeko eredu komertzialak ere. Orain arte aipatu ditugun kasuek zer dute komunean? Proposamen itxiak direla; hasi eta buka egiten direla, alegia.

Irekitasunari begiratzuz gero, *tangrama* eta *soma kubo*a dira adibide ezagunenak. Biak daude zazpi piezarekin eratuta, baina *tangrama*-rekin, bi dimentsiotan jarduten dugu eta *soma kubo*a-rekin, berriz, hiru dimentsiotan.

Irekiak direla diogu forma ezberdinak lortzeko eronkei aurre eginez jarduten baita. Erroren zailtasuna umearen gaitasunari egokitzeko aukera ematen dute, sortu beharreko irudiaren inguruko pistak ematea posible baita.

Atal honetan aipatuko genituzke baita ere *Tetris*, *Pentomino*, *Tantrix* eta *IQFit* jolasak, izan bertsio komertzialean edo digitalean. Eta jolas arautu eta konpetitiboen esparruan *Chromino*-k eta *Blokus*-ek ere puzzleen ezaugarriak dituztela esan genezake.



Bloke geometrikoekin jolasean.

Bloke geometrikoak

Askotariko jolasen bidetik iritsi gara, azkenean, irekitasunean hurrengo urratsa diren bloke geometrikoetara. Sei pieza motak eratzen dute material hori. Plastikozkoak zein egurrezkoak erosi daitezke, eta 200 pieza inguruko kutxatan etortzen dira.

Lehen begiratu batean ez dirudite gauza handia, ezta? Eta, hala ere, umeen esku utzita librean –bestelako gidaritarik gabe– berehala ikusiko ditugu sormenaren makina martxan jartzen. Eta umeak behatzen jarri gero ikusiko dugu badaudela forma geometriko simetrikoak modu oso ordenatuan eratzen dituztenak. Beste batzuk, berriz, hasiko dira esanguratsuak egiten zaizkien irudiak eratzen. Eta egongo dira forma benetan bitxiak egitea aterako zaizkien umeak.

Txikienekin hortxe bertan hasi daiteke elkarrizketa matematikoa. Egin duten hori aztertze eta ezaugarriak hitzetara ekartzetik. Geroago, lan gidatuari ekiten diogunean mundu oso bat zabalduko da gure aurrean. Bloke geometrikoekin matematikaren atal guztiak jorratu ahal izango ditugu, eta LH guztian zehar: zenbakikuntza, eragiketak, logika eta egoeren ebazpena, desafioak, jolas arautuak, ikerketa lanak, behaketa eta

SEI PIEZA MOTAK OSATZEN DUTE MATERIALA, ETA 200 PIEZA INGURUKO KUTXETAN DATOZ



IQ puzzlea.



Soma kuboak.



Tangrama.

ondorioztatze prozesuak, eta nola ez, geometria... Horiek denak aktibatuta ahal izango ditugu. Analisisirako zein ondorioak ateratzeko sena eta behatutakoak hitzetan jartzeko gaitasuna piztea lortzen badugu, lan matematiko bikaina egiten ariko gara.

Nahi duzue blokeekin zatikiak nola aztertu daitezkeen jakin? Eta blokeekin gurutzegrama jolasak egitea? Konposaketa eta deskonposaketa lanak egitea? Umeei ez ezik, ingurukoei erronka geometrikoak proposatzea nahi duzue? Jolas arautu erraz baina dibertigarria planteatzea?

Bada, *Matematiketan.eus*-en aurkituko dituzu horien guztien erantzunak. Materialak berak potentziala badu. Ea potentzial hori aprobetxatzen asmatzen dugun! ■■■

Maulanda jatetxean gertuko tratua nagusi



REINALDO CALERO SUKALDEBURUA
IRUDIAK: A.T. ETA J.O.

Plater tradizionalak egiteaz gainera, berrikuntza ugari gehitu ohi ditugu gure eskaintzara. Duela hogei urte baino gehiagotik, etxean egindako plater tradizionalak ditugu aukeran.

Hain zuzen ere, horren adibide da ondorengo orrian datorren platera; oso harrera ona izan du bezeroen artean, eta, nahiko sinplea dirudien arren, aukera ezin hobea da edozein otordutarako.

Maulanda jatetxea

- **Helbidea:** Maulanda auzoa 1, Eskoriatza.
- **Telefonoa:** 943 71 47 20.
- **E-posta:** reicalero@gmail.com.
- **Webgunea:** Maulandajatetxea.com.

Plater tradizionalak

Kartan eta menuan askotariko aukerak ditugu egunerokoan, mimo handiz egindakoak guztiak; esate baterako, tripakiak, buztana eta arrautza txorizoarekin sarri eskatzen dituzte gure bezeroek. Bestalde, askotariko entsaladak ere eskaintzen ditugu Maulanda jatetxean: mistoa; berezia –mistoaren antzerakoa, baina aza-gorria, azenarioa eta artoa gehituta–; oilaskoarena eta bakailaoarena, besteak beste.

Askotariko aukerak

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta ogitartekoak eskaintzen ditugu jatetxean. Gainera, haurrentako plater berezi bat ere izaten dugu, 7 eurotan.

Etxean bezala

Etor zaituz gure plater goxoak dastatzera eta atsegin handiz hartuko zaitugu, etxean bezala sentituko zara gurean, gertuko tratua eskaintzen baitiegu bezero guztiei Maulanda jatetxean. ■■■



MAULANDA JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Kalabazin beteak gazta-saltsan

Osagaiak (2 lagunendako)

- Kalabazina
- Arrautza
- Irina
- York urdaiazpikoa
- Gatza

Saltsa egiteko:

- Esne-gaina
- Philadelphia gazta
- Camembert gazta
- Gazta urdina
- Gurina

Prestaketa

- 1. Kalabazinak xaflatan ebaki eta arrautza-irinetan pasatu.
- 2. York urdaiazpikoarekin eta gaztarekin bete.
- 3. Olio apur batekin zartaginean egin.
- 4. Saltsa egiteko, gurin apur bat berotzen jarri eta esne-gaina gehitu.
- 5. Epel dagoenean, hiru gaztak gehitu eta gatz apur bat bota.
- 6. Kalabazinak plateran jarri eta gainetik bota gazta-saltsa.

Zailtasuna: • • • • •

Aurreko zozketako irabazlea: Nerea Sarasua Arozena (Elgeta)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Originaltasunaren bidean

BELARRITAKOAK

AMAIA ARANEGI

ARGAZKIAK: PINTEREST

Belarritakoak modako osagarri garrantzitsuak dira eta, sarri, *look* bati ukitu berezia emateko erabiltzen dute askok. Izan ere, lehenengo begi kolpean ikusten dira eta horregatik kontu handiz aukeratu beharreko osagarriak direla azpimarratzen du Zubiaga bitxi-dendako Elena Fernandezek: "Belarritakoek garrantzi handia daukate, begi bistan baitaude.

Eskumuturrekoak, eraztunak, lepokoak... edo beste osagarri batzuk arroparekin, agian, ez dira beti ikusten. Baina belarritakoak aurpegian daude eta edonoren atentzioa erakartzen dute".

Gaur egun, aniztasun handia dago belarritakoetan eta geroz eta belarritako original eta ausartagoak egiten dituzte. "Eskaintza zabala" dagoela azpimarratzen du Fernandezek. Baina modan aspaldiko joerak berreskuratzen dira, eta horren adibide dira belarritako igokariak izenekoak.

Iraganeko joera

Jatorriz 30eko hamarkadakoak direla diote, Marcel Boucher bitxigile frantziarra aristokraziaren belarriak apaintzen hasi zenean. Gero, 80ko hamarkadan bueltatu ziren, eta punk estetikaren ezinbestekoak bilakatu: "Modan joerak joan eta

bueltatu egiten dira. Belarritako mota hauek ez dira gaur sortu. Baina egia da gaur egun elementu gehiago dituztela eta askoz ere ikusgarriagoak direla".

Belarritako igokariak belarri gingila kartilagoarekin batzen ditu, eta kate fin edo harritxoekin belarriko profila estali. Belarrian zulo bakar bat izanez, belarri osoa apainduta izateko aukera bat da, eta, batzuentzako, belarrian beste zulo bat ez egiteko alternatiba.

Aniztasun handia

Belarritako mota hauek aukera desberdinak eskaintzen dituzte; izan ere, badaude sinpleak *look* elegantea osatzeko eta ikusgarriagoak jendearen atentzioa bereganatzeko. Oso garrantzitsua da bakoitzaren ezaugarriei erreparatzea eta belarritako egokia aukeratzea; honela dio Elenak:

"Belarritakoak oso pertsonalak dira, guztiak ez dira denontzat baliagarriak. Norberaren aurpegiaren tamainak, aukeratutako arropak, orrazkerak... kontuan hartzeak garrantzi handia du belarritako egokia aukeratzeko orduan".


Belarritako mota hauek, igokariak, bueltan daude, eta geroz eta estilo, tamaina eta diseinu erakargarriagoekin. Ausartak, desberdinak eta originalak dira eta gaur egun modako osagarri garrantzitsu bilakatu dira. ■




Urre ukituko belarritako igokaria.



Zilarrezko belarritako igokaria.




Taylor Swift aktorea.



Michelle Jenner aktorea belarritako igokiarekin.



Belarritako deigarria.



Belarritako elegantea.



Belarritako igokari originala.

Elurra eta desertua

MAROKORA BIDAIA

XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: IKER OROBENGOA

Iker Orobengoa arrasatearrak laugarren aldiz hartu du Marokorako bidea. Probatu dutenek diote motorrekin desertuan ibiltzearen plazera *adiktiboa* dela, eta Orobengoa da horren adibide garbietako bat. Zortzi laguneko taldean egin du azken bidaia –hiru arrasatear, hiru oñatiar, zeanuritar bat eta legutiar bat–, eta denak zeuden aurrez Marokon egonda. "Ez genuen hasiberririk taldean. 4x4 autoekin edo motorrekin aurrez egondakoak ginen denok, eta esperientzia puntu horrekin askoz errazagoa da momentu zailak gainditzea. Ezustekoren bat edo beste izan dugu, baina primeran konpondu gara elkarrekin. Mhamid ingurura

heltzeko, adibidez, beste bide bat hartu genuen, eta denetarik tokatu zitzaigun: erreka-zuloak, duna txikiak harea fin-finarekin... motorrak hareetan hondoratuta geratzen zitzaizkigun behin eta berriz... baina, zailtasunak-zailtasun, beti aurrera!".

Kontraste ugari

Laugarren bidaia honetan zerbait berezia egin duten galdetuta, hona Orobengoaren erantzuna: "Kontraste askoko bidaia izan da: elurra, desertua... Rif ingurua zeharkatzen ari ginela egin genuen topo elurraekin. Ez da bereziki altuera handia duen lekua, eta ez genuen halakorik aurkitzea espero. Elur gainean ibiltzea arrisksua da, eta momentuan ibilbidea aldatzea erabaki genuen. Hala,

Merzougarantza heltzeko Aljeriako mugarantz jo genuen, eta bide berria izan zen niretzako".

Arazoak bai, gainditu ere bai

Halako bidaia luzeetan arazo mekanikoak eta erorikoak izatea normala da, baina eduki dituzten horiek gainditu egin dituzte. "Erradiadore bat zulatu zitzaigun, eta beste arazo bat izan genuen motorra abiarazteko kable batzuekin. Erradiadorea konpontzeko, adibidez, atzera egin behar izan genuen, Zagorara, eta horren eraginez ez ginen Plage Blancheraino iritsi. Arazo mekaniko txikiagoak ere izan genituen. Motorreko petatean pisu handia daramagu, 20-25 bat kilo, eta horrela errazagoa izaten da kolpe txikiekin gauzak apurtzea". ■■■

Marokoko jendearen xarma eta magia, beste behin

"Irudikoa izan zen unerik hunkigarriena. Gasolindegia batean nongoen, gasolinaren prezioa negoziatzen. Normalean, 10 dirham balio du litro batek, eta 13 kobratu nahi zizkidaten. Halako batean, irudiko umeetako bat gerturatu zitzaidan, eta musu eman zidan eskumako eskuan. Besarkada batekin erantzun nion, eta argazkia atera genuen".



Orobengoa, Marokoko haurren berotasuna jasotzen.



Orobengoa, motor gainean, desertuko pasaia ederrean.



Elurra ikusi zuten lekuetako bat.



Gorges du Toudra herrixka ikusgarria.

Danel Teran

MAIALEN SANTOS

IRUDIAK: DANEL TERAN

Oholtza gainean trebea da Danel Teran (Oñati, 2001) Antzerkigintzan ez ezik, pailazo ere badihardu. Ikus-entzunezko gradua ikasten ari da egun, kamera "aurreko" lanaz gain "atzekoa" ere gustuko du eta.

Nola murgildu zinen antzerki munduan?

8 urte nituela izan nuen antzerkiarekin lehen harremana. Zapatu goizetan Gasteizko antzerki eskolara joaten nintzen; bizpahiru urte egin nituen bertan, eta gero, utzi egin nuen.

Noiz hartu zenuen berriro?

Irazan antzerki eskola sortu zutenean, 2015ean, 14 urte nituela. Orduetik ez dut utzi;

are gehiago, proiektu ezberdinetan aritu naiz.

Nola eboluzionatu duzu azken urteetan?

Irazaneko gazte taldean hasi nintzen antzeztzen, zehazki. Eta hortik beste bi proiektu sortu zitzaizkidan; Potx eta Lotx pailazoekin lan egiteko aukera eta XUP! gazteen antzerki taldearekin aritzeko.

Antzerkia eta pailazo lanak uztartzen dituzu, hortaz...

Bai. Antzerkigintzari dagokionez, Irazan gazteen dinamizatzaile izatera pasa naiz. Bestalde, XUP! taldea sortu berria da; beste gazte batzuekin batera lehen antzezlana sortu dugu: *Kontraizanak*. Izugarri pozik nago obra honek emandakoarekin.

Eta noiz izaten zara pailazo?

Irazan gazte taldean nembilela ezagutu nituen Josu eta Itziar [Potx eta Lotx] eta beraiekin batera aritzeko aukera eskaini zidaten; zalantzarik gabe onartu nuen. Dagoeneko bi denboraldi egin ditugu elkarrekin; *Herriko festetan* eta *Etxean* ikuskizunak egin ditugu, eta laster hirugarren bat egingo dugula aurreratu dezaket.

Formakuntzarik jaso duzu?

Ez gehiegi. Irazanen egin izan ditugu tailerrak, eta pailazoekin Valentziara joan izan gara, hango bi pailazok antolatutako ikastaroetara. Hala ere, beti diot egiten ikasiz noala.

Eta zer ikasi duzu?

Oholtza gaineko teknikak hobetzeaz gain, arlo pertsonalean ikasitakoa nabarmendu nahiko nuke. Antzezle lanetan aritzeak



Osaba pailazoaren paperean.



Potx eta Lotx pailazoaren ikuskizunean, gutuna irakurtzen.



jendearekin harremanak egiten –eta hobetzen– lagundu dit. Egunero ikasten da zerbait, hau ikasketa prozesu bat da.

Beraz, egunero entseatzen duzu?

Ia egunero egiten dut antzerkiari lotutako zerbait. Entsegurik ez badut, dinamizatzaileran lanetan aritzen naiz. Ikuskizunak, bestalde, asteburuetan egiten ditugu; alde horretatik, garai lasaia da orain.

Unibertsitatean hasi berri zara...

Hala da, bai. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten hasi naiz ikasturte honetan. **Etorkizunean zertan aritu nahiko zenuke?**

Antzerkian jarraitu nahi dut, baina konturatzen ari naiz kamera aurreko lana ez ezik atzekoa ere oso gustuko dudala. Gustatzen zait ikuskizunetarako soinua, argiteria... prestatzea. ■



Irazaneko *Moganbo* ikuskizunean.

Kopla flamenko-euskaldunak

'GORRIA' IKUSKIZUNA

AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: LEIHOR ELORRIAGA

Askoa Etxebarrieta *La Pulga* dantzariak Euskal Herriko txoko askotara eraman ditu flamenko dantza eta doinuak. Orain dela bi urte, Berrizko jaietan izan zen; ikusleen artean zen Miren Amuriza. "Inpresio handia egin zidan, energia elektriko bat iruditu zitzaidan, eta gustatu egin zitzaidan. Flamenko-zalea naiz, eta banuen halako intuizio moduko bat euskal erritmo eta doinu batzuk, kopleak batez ere, flamenkoko *palo* batzuekin uztargarriak izan ahalko zirela, eta Askoarekin biltzea pentsatu nuen", kontatu du bertsolariak.

Dantzariak ez zuen Berrizen bertsolaria ezagutu, baina pozik jaso zuen elkartzeko egin zion gonbidapena: "Elkarrekin zerbait egitea proposatu zidan. Nik momentu hartan ez nuen Miren Amuriza askorik ezagutzen, baina, bertsolaria zenez, baietz esan nion segituan. Proiektu eta nahasketa berriak egitea eta gauza berriak ikastea asko interesatzen zait. Legution bildu ginen, eta *feeling* ona egon zenez, zer eta nola egin hasi ginen pentsatzen".

Lanku-ren laguntzarekin

Bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko sortu zuen 2003an Bertsozale Elkarteak Lanku kultura enpresa. Urtero kultura ekimenak sustatzeko beka eskaintzen du, eta hara

aurkezteko asmoarekin hasi zen bikotea gerora *Gorria* izena izango zuen lana sortzen. Elkarrizketaren diziplinak azalduz ekin zioten lanari. "Erronka bat zen biontzako, ez bakarrik zerbait berria sortu behar genuelako, baizik eta sortzeko ikasi egin behar genuelako aurrez; hortaz, berak flamenkoaren oinarri batzuk azaldu zitzaizkidan eta nik gauza bera bertsogintzarekin", dio Amurizak.

Egitura orokorra osatzeko osagai aipatzenak uztartzea izan zela hurrengo pausoa dio La Pulgak: "*Palo* asko daude, eta bakoitzak bere esentzia du. *Segidilla*, esaterako: gehienetan, gai tristeak dira, barrukoa da, soila; *alegría*, guztiz kontrakoa; *farruca* bien artekoa da eta prakekin dantzatzen da beti; *bulería*, *solea por bulería*... Ikuskizunean horietako asko daude; ez dira dantza osoak, pieza ezberdinak baizik".

Hamar piezatan banatuta, 50 minutuko obra da sorkuntza; egileek diote "bertsolaritzaren eta flamenkoaren arteko fusioa baino gehiago, bertsolari baten eta flamenko-dantzari baten

arteko elkarrizketa prozesu baten emaitza" dela. Taularen gainean bi lagun dira, baina *Gorria*-ren atzean jende gehiago dago: Eder Aurre (jantziak); Lierni Eizagirre (atreztoa); Ion Chavez (argiztapena); Ion Garagarza (soinuztapena); Aitor Escobar Arrasateko gitarra-jolea; Adrian Larrañaga, perkusioan; eta Aitor Ariño musika grabaketa eta muntaia lanetan.

Gorria da haria

Amurizak sortutako hitzekin kopla neurrikoak dira testu guztiak. "Sorta bakoitzak gai bat dauka eta modu batean edo bestean kolore horrekin lotuta dago, batzuetan, sinbolikoki, eta giroagatik, edo esplizituki berba horren konnotazioak azaltzen direlako", dio bertsolariak, eta zera gaineratu du dantzariak: "Gaiteka zabala da. Hitz ederrak dira, eta ahots oso politarekin kantatuak. Sekulako lana egin du flamenko doinuak kopletan sartzen, eta hori ez da erraza".

Doinuen aukeraketan, euskal eta flamenko arteko oreka bilatu dute "Batzuetan, musika daukagu, gitarra edo perkusioa, eta beste batzuetan, *a capela*".

Zuzenekoari neurria hartzen

Iruñean eta Legution izan dira, eta otsailaren 1ean, 18:00etan, Bergarako Seminarixoan. Publikoak harrera ona egin die, eta artistak ere harro eta pozik, ilusioz daude saiotik saiora onena emateko. ■■■

**BERTSOLARI BATEN
ETA FLAMENKO-
DANTZARI BATEN
ARTEKO ELKARRIZKETA,
GORRIA OINARRI**



Gorria ikuskizunaren une bat, bertsolaria eta dantzaria itzaletan.




Miren Amurizak abesten ditu koplak.



Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-ren energiaz betetako dantzak.

Portzelana fina



Neguko argiak

Egilea: Irati Elorrieta
Argitaratzailea: Pamiela
Argitaratze urtea: 2019
Orrialdeak: 288
Generoa: Eleberria

ANDONI URZELAI IDAZLEA

Badaude zeramikazko piezak diruditen nobelak. Autoreak hartzen du buztin pusketa bat eta poliki-poliki, samurtasunaz, ematen dio forma eta bihurtzen du lokatz mordoilo bat zena portzelanazko lan eder eta delikatu. Ba, hara, horixe begitandu zait *Neguko argiak* nobela: mimoz egindako artisaу-lan dotore eta aparta.

Jaurlaritzak urtero ematen duen Euskadi saria jaso zuen Irati Elorrietaren nobela honek 2019an. Merezita jaso ere, liburu galanta da eta. *Neguko argiak* iruditu zait tarteka magikoa, tarteka iradokitzailea eta beti gozagarria, estiloz zein edukiz.

Liburuen iruzkinak egitean tentuz ibili behar izaten du batek *spoiler*-ik ez egiteko. Kasu honetan, nahita ere, zaila da. Istorio bakar batekin eraikitako koadro bat barik, istoriotxo askorekin ondutako puzzle moduko bat baita eleberri hau. Narrazio ildo nagusi bat egon badago, jakina; baina ez dio ohiko *azalpena-korapilota-amaiera* hariari segitzen.

Añes eta Marta dira nobelako protagonistak. Berlinen bizi dira biak. Orriz orri, bi protagonisten eguneroko eta iraganeko pasarteak tartekatuz, bataren eta bestearen ibilbide existentziala ezagutarazten zaigu. Ihesa, erresistentzia, porrota, erori eta berriro hutsetik hastea... Biek itxi behar izan dituzte hainbat ate beste batzuk zabaldu eta aurrera egin ahal izateko, eta atetik aterako ibilbide horretan hainbat pertsonaia gurutzatzen zaizkie, zahar zein berriak, jada presentzia fisikorik gabekoak batzuk eta etorkizun hobeago baten proiektzio gisara azaldutakoak beste hainbat.

Ez da, inondik inora, erritmo frenetiko idatzitako nobela, non kapitulu bakoitzean hamar gauza

**SUSMOA DAUKAT
NOIZBAIT BERRIZ
BARNERATUKO
NAIZELA
ORRIOTAN**

ezberdin gertatzen diren. Aitzitik, patxadatsua da, samur-samur idatzia. Baina joria da edukiz zein pertsonaiez, eszena eta ahots ugariz beteta baitago.

Finean, landare bat hazten ikustea bezalako zerbait da nobela hau irakurtzea, orriak pasa eta kontakizunak aurrera egin ahala kimu berriak ateratzen baitzaizkio narrazioari. Nolabait esatearren, zera da: planeta ugariz betetako unibertso txiki bat, eta hain du unibertso horrek grabitate-indar handia, non behin barneratuz gero erakarriko zaituen iman batek bezala. Niri hori gertatu zait, bederen, buruz behera bota eta plisi-plasta ibili naizela narrazioko uretan, paragrafo bakoitzarekin gozatuz.

Eta, gainera, susmoa daukat noizbait berriz barneratuko naizela orriotan. Magikoa da hori, ezen liburu bat bigarrenaz irakurtzeko gogoa edukitzea hain da gutxitan gertatzen den gauza... ■■■

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!



Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago LPD 15/1999 legearen arabera, jekinetan dago zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxuragiz automatizatuz baten sartuko direla. Datu-bilera honen helburu bakarra da informazio gehiago sustapena gestioz. Eskubidea orango datu dabitzen sartuko, haiek zuzentzeko edo ezartzeko, helbide honetan idatzita: kluba@goiena.eus



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



Irabazi bi lagunendako sarrerak

Ibal-Arte elkarteari esker

"Strad" ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilak 31 | 20:30etan

Bergarako udalari esker

"Goria" dantzaldirako sarrerak ditugu

Bergara | Seminarixoa | Otsailak 1 | 19:00etan

PARTE HARTZEKO: URTARRILAREN 29RA ARTE

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "Strad/Goria"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago LPD 15/1999 legearen arabera, jekinetan dago zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxuragiz automatizatuz baten sartuko direla. Datu-bilera honen helburu bakarra da informazio gehiago sustapena gestioz. Eskubidea orango datu dabitzen sartuko, haiek zuzentzeko edo ezartzeko, helbide honetan idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitu: 943 25 05 05

kluba@goiena.eus

goienakluba

Pozoitu bako ura

ANTZUOLAKO FRANTSSES ITURRIA

MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: 'IRINMODO' BLOGA

1794ko abuztuaren 30ean, frantsesen inbasioa heldu zen Antzuolara. Aurreko egunetan, Eibar eta Ermua erre zituzten, eta Ondarroarako bidean Antzuolatik pasa ziren. Herrian egindako sarraskia ikaragarria izan zen. Hango eta hemengo etxeak eta eraikinak deuseztatu zituzten, 1794tik 1797ra. Atzera-egiteko unea heldu zenean, "opari" bat utzi zieten antzuolarrei. "Antzuolatik joan aurretik, herrian edateko zegoen ur guztia pozoitu zuten. Bat izan ezik, iturri guztiak kutsatu zituzten. Soldaduek edateko erabili behar zuten iturria, hain zuzen. Frantses iturri izenez ezagutzen dena", irakur daiteke Iñigo Ramirez de Okarizen *Irinmodo* blogean.

Jatorrizko Frantses iturria Eusebio Gabilondo antzuolarraren lurretan zegoen, eta hark gogoratzen du pozoitzearen pasadizoa, aitari entzunda.

Errege-bidean

Soldadu frantsesekin izandako pasarte hark eman zion izena iturriari, baina 1825eko katastro dokumentuan agertzen da lehen aldiz iturri hori erregistratuta. Hango datuen arabera, iturria zegoen gunea Telleriaboru izenez ezagutzen zen. Iturriak izen bera hartu zuen. "XIX. mendetik hona

erabiltzen da Frantses izena; izan ere, antzina, errege-bidea hortik pasatzen zen. Sasoi hartan, frantses ugari ibiltzen zen bide horretan", esan du historialariak.

Lekuz aldatu zuten


Antzuolako Basalde auzoan dago Frantses iturria. Bada, autobiarene lanak hasi zituztenean, iturriaren iraupena bermatze aldera, lekuz aldatzea adostu zuten Arrolakoek.

"Iturburua autobia pasatzen zen bidearen azpian zegoen, eta aska baten bidez iturburua kanpora ateratzea pentsatu genuen. Hango langileei eskatu genien hori egitea, eta baiezkoa eman ziguten", gogora ekarri du Ramirez de Okarizek.

Aldaketa gauzatzeko prozesua auzolanean egindakoa eta neketsua izan zen. Jatorrizko iturriko urak hartu eta beste aska batera pasatu zituzten, autobideko lanak hasi aurretik. Aska hartatik, ura kanalizatuz, egun dagoen lekura bideratu zen, iturri berria dagoen lekuraino. 2019ko irailean ipini zuten plaka iturriaren goiko aldean, eta lanak bukatutzat eman zituzten.

Metal-ura

Frantses iturriak metal-ur arrasto txikia dauka. Agorraldian, ur-emaria da minutuan behin bi litro; eta eurite garaian, emaria zazpi litro izatera pasatzen da. ■■■



Arrolakoak kanalizazioa egiten.



Iturri berrian ura hartzen.



Bigarren aska.



Jatorrizko Frantses iturria.



Arrolakoak, lanak bukatuta.



Iturriko plaka.



Iturria, kokapen berrian.

Behatza eta itsasoa



MIKEL ARREGI

Pasa dira aste batzuk Kongresuko kazetari zahar eta beteranoetako batekin Espainiako Parlamentuko inguruetan dagoen taberna batean topo egin nuen momentutik. Beti bezain adeitsu, erretiroa hartu berri zela kontatu zidan, nahiz eta oraindik esku artean proiektu garrantzitsua zuela aitortu: kazetaritza parlamentarioak azken urteotan jasandako eraldaketa sakonei buruzko doktore tesia osatzen hasi zela komentatu zidan. Bere ustetan, asko kaskartu da gure ofizioa azken hamarkada honetan. Kazetarion prestakuntza nabarmen jaitsi dela zioen, segur aski sektoreko lan baldintza eskasek sustatuta, eta egun gaiak lantzeko moldea askoz azalekoagoa dela ere aipatu zuen.

Azken puntu honetan badu lagunak arrazoi puntu bat: azken hamarkadan sare sozialek informazioa momentuan bertan trukatzeko aukera eman digute, eta horrek berehalakotasunaren zurrunbilora bultzatu ditu ohiko komunikabideak –irratia, telebista, eta baita prentsa idatzia ere–. Albisteak ziztu bizian doaz, eta nahikoa da txio edo alerta bat mugikorreko pantailan azaltzea, kazetari guztiok horren inguruan dantzan jartzeko.



CREATIVECOMMONS / PMK

Ohiko eztabaida da hau irratiko gure nagusiekin. Duela hamar urtera arte, irratian orduero ematen ditugun buletinak ziren entzuleak albiste berrienak jasotzeko zuen bidea, egun, ez da horrela; eta gauza bera gertatzen da telebistarekin, albisteak zahar bihurtu litezke informatibora arte itzaronda.

Bada, Twitterrek, Whatsapppek, Telegramek eta besteek ezarritako diktadurari aurre egiteko, komunikabide tradizionalak erantzuna eman dute. Telebistak *En jake*, *ARV* eta halako programekin egin du, irratia momentuan

gertatzen ari diren albisteen aurrean programazioa moztuaz, eta prentsa idatziak eduki anitzeko Interneteko plataformen aldeko apustu eginaz. Berehalako albisteen uholde honek, baina, eta berak dakarren menpekotasunak, kazetari jardunak beharrezko dituen denborak alde batera uztera eraman gaitu.

Testuinguruari ez diogu jaramonik egiten jada. Gai askok behar duten jarraikortasunari ere ez. Ezin dugu, erantzuna eman behar baita, momentuan, eta horrek ez digu lana fundamentuz egiten uzten. Kazetariak itsasoa bezain zabala den jakintza behar duela esaten da, itsasoa bezain zabala, baina behatz baten sakonerakoa. Egun, sakontasun hori eskatzea larregi da, ezinbestez, nahiz eta nire lagunak kontrakoa uste. ■

**KAZETARIAK ITSASOA
BEZAIN ZABALA ETA
BEHATZ BAT BEZAIN
SAKONA DEN JAKINTZA
BEHAR DUELA DIOTE**


Sare sozialak albiste faltsuen aurka lanean

Facebookek martxan jarri du *Maldita.es* eta *Newtral* enprekin batera albiste faltsuen aurka jarduteko akordioa.

Funtzionamendua

Azaldu dutenez hiru bide izango dituzte *fake news*-ak identifikatzeko: erabiltzaileek albiste faltsu moduan markatutako argitalpenak, Facebookek eta Instagramek adimen artifizial bidez atzemandakoak eta aipatutako bi enpresek egindako egiaztapen zuzenak. Kasu guztietan, eskuz markatu beharko dute albiste faltsu mota: gezurra, nahasgarria, ezin egiaztatu, satira...

Duela egun batzuk, sistema berriak eztabaida piztu zuen, Abascal politikariaren argitalpen bat informazio faltsu moduan etiketatua izan ostean. Bi enpresek ez dituzte politikarien *post*-ak aztertuko, baina eduki bera –inbestidurako bideo bat, kasu honetan– beste argitalpen batean faltsu moduan etiketatzen badute, Facebookek eduki bera duten argitalpenetara hedatu dezake oharra.



Googleren nagusitasuna mugatzen


Android gailuetan aurreinstalatuta eta lehenetsita etortzen da *Google* bilatzailea eta horrek botere handia eman dio Googleri berari. Horregatik, iaz, Europar Batasunaren isun bat jaso zuen, merkatuan zeukan nagusitasun-posizioagatik.

Isun horren harira, Googlek *Choice Screen* –aukeratze pantaila– iragarri zuen. Martxotik aurrera, mugikorra lehenekoz konfiguratzerakoan bilatzaile ezberdinen artean aukeratu ahalko da.

Estatu bakoitzean *Google* bilatzaileaz gain beste hiru bilatzaile eongo dira aukeran. Horiek aldatzen joan daitezke hiru hilean behin. Erresuma Batuan izan ezik, beste guztietan *DuckDuckGo* nagusitu da. Espainiako Estatuan, *Info.com* eta *Quant* izango dira beste bi aukerak.

'DuckDuckGo'

Pribatutasuna da bilatzaile honen ezaugarri esanguratsuenak. Ez du erabiltzaileen informazioa gordetzen, eta, beraz, ez ditu bilaketetako emaitzak eta publizitatea pertsonalizatzen.



Sudokua



Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



ZortziKoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.

DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Itzala

Zein da patinatzaile xelebre honen itzal zuzena?



Lander Etxabe Jimenez

Azkoitia. 3,100 kilo. Urtarrilaren 15a. Gurasoak: Ainhoa eta Jon. Argazkian, gurasoekin batera.



Iris Andrea Martines Gradiz

Arrasate. 2,600 kilo. Urtarrilaren 15a. Gurasoak: Maria Antonieta eta Andre. Argazkian, aitaren besoetan.



Lara Da Costa Alvarez

Aretxabaleta. 2,980 kilo. Urtarrilaren 13a. Gurasoak: Silvia eta Paulo. Argazkian, Lara, amarekin.



Maia Aldanondo Eriz

Bergara. 3,970 kilo. Urtarrilaren 12a. Gurasoak: Naira eta Unai. Argazkian, sehaskan gustura.



Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulua.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.





dks'19

DEBAGOIENENKO
KIROL SARIAK

Mankomunitateko udal bakoitzak bere herriko kirolari, elkarte edo ekimena sarituko du.



ANTZUOLAKO
UDALA

ANTZUOLA SARIA
Aitor Mendizabal



ARAMAIO SARIA
Aitor Ugarte



Aretxabaletako
Udala

ARETXABALETA SARIA
Oihana Aldai



ARRASATEKO UDALA

ARRASATE SARIA
Fernando Zufiria "Txufi"



Bergarako
udala

BERGARA SARIA
Jose txo Muriategi



ELGETA
UDALA

ELGETA SARIA
Iñaki Olaortua



eskoriatzako
udala

ESKORIATZA SARIA
Narciso Pavo



LEINTZ GATZAGA

LEINTZ GATZAGA SARIA
Joxe Inazio Beloki



OÑATI
dabilen herria

OÑATI SARIA
Markel Irizar

SARI BANAKETA ZUZENEAN:

GOIENA TELEBISTAK ZUZENEAN ESKAINIKO DU ETA
GOIENA.EUS ATARIAN STREAMING BIDEZ ESKEINIKO DA

URTARRILAREN 28AN, 19:00ETAN, BERGARAKO SEMINARIXOAN

SARI NAGUSIEN
BABESLEAK:

ekidegroup

KIROLARI ONENAREN SARIA

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

TALDE ONENAREN SARIA

LABORAL
kutxa

HERRITARREN SARIA

ERREKA

SARI BEREZIA

SORALUCE

KIROL IBILBIDEAREN SARIA